



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko ekainaren 18a

50. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Foru Komunitateko kutsadura akustikoari buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren Bulegoak egin [\(2. or.\)](#).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko kutsadura akustikoari buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren Bulegoak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 12an, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Arartekoaren Bulegoak Nafarroako Foru Komunitateko kutsadura akustikoari buruz egindako txostena jaso duela jakinaraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako Foru Komunitateko kutsadura akustikoari buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren Bulegoak egina

AURKIBIDEA

SARRERA (2. or.).

JUSTIFIKAZIOA (3. or.).

HAUSNARKETA JURIDIKOAK (5. or.).

UDALAREN ESKU-HARTZEA (13. or.).

NAFARROAKO GOBERNUAREN ESKU-HARTZEA (22. or.).

ONDORIOAK (29. or.).

GOMENDIOAK (32. or.).

I. ERANSKINA: UDALEI ESKATUTAKO INFORMAZIOARI BURUZKO GALDETEGIA (34. or.).

SARRERA

Gero eta herritar gehiago hurbiltzen dira gure erakundera haien atsekabea adierazteko; izan ere, haien ustez, Administrazioak ez du eraginkortasunez jokatu kutsadura akustikoari buruz jarri dituzten salaketan aurrean. Horregatik, ararteko gisa, egokia iruditu zitzaidan txosten hau egitea.

Kasu partikularrak baino haratago joan nahi genuen. Gure asmoa zen ebaluatzea administrazio publikoek zainketa eta kontrol neurriak betetzen dituzten eta, batez ere, antzemandako egoera kaltegarriak konpontzeko eskura dituzten tresnak eta ahalmenak behar bezala erabiltzen dituzten.

Hauek dira gure hiri eta herrietako bizi kalitatea hondatzen duten eguneroko egoeren zenbait adibide: ostatuen aurka jartzen dituzten salaketak, "txabiskeetan" edo aisialdirako lokaletan egiten den zaratari edo herriko jaiei buruzko kexak; begirunerik gabeko bizilagunek egiten duten zarata; kamioi banatzaileek, autobus geltokiek edo zaborra biltzeko zerbitzuek sortzen dituzten eragozpenak eta dardarak; motordun ibilgailuek, ziklomotorrek, etab., edo egoitza eremuetatik gertu dauden industri instalazioek sortzen duten zarata.

Tamalez, egiaztatu ahal izan dugu, salbuespen errespetagarriak kenduta, administrazio publikoen esku-hartzea ez dela nahi bezain eraginkorra izaten ari arlo horretan. Horregatik, egokia iruditu zait erantzule publikoei legezko betebeharren gogorazpen batean biltzen ahal diren zenbait gomendio egitea, Legeak ezartzen dien betebeharra, antzemandako irregulartasunak berehala zuzentzea, alegia, zorrotasun handiagoz beren gain hartze-ko.

Auzitegiek finkatutako doktrinaren arabera, gehiegizko zaratak intimitaterako eta atsedenerako eskubideen benetako laido inkonstituzionalak dira, sortzen dituzten ondorio fisiko, psikologiko eta sozial garrantzitsuak direla-eta. Ikuskera horri jarraikiz, zarata ingurumen kutsatzaile handia da eta herritarren eskubide ukituen zehaztean ondorio juridiko eta administratibo handiko aldaketa kualitatiboa sortzen du.

Hortaz, administrazio guztiek urrats kualitatibo hori eman behar dute, kutsadura akustikoaren prebentzioan eta zuzentzean duten esku-hartzean, eta jasotzen dituzten kexak esparru pribatuari

lotutako “eragozpen hustzat” hartzeari —gehiegitan gertatzen dena— utzi behar diote.

Botere publiko guztiek kutsadura akustikoak izan ditzakeen ondorioen larritasunaz jabetu behar dute eta haien ahalmenak erabili behar dituzte, dagokien jarduketa esparruan, herritarren funtsezko eskubideen babesa bermatzeko.

Bitarteko materialak, giza bitartekoak eta arauzko hobekuntza zehatzak areagotzeak eginkizun konplexu horri arrakasta handiagoz aurre egiten lagunduko liguke, zalantzarik gabe.

Nafarroako arartekoa: M^a Jesús Aranda Lasheras

JUSTIFIKAZIOA

Azken urteotan, zarata sortzen duten jarduera gogaikarriekin lotutako kexa kopuruak gora egin du nabarmenki.

Gero eta herritar gehiago salaketak aurkeztu beharrean aurkitzen dira, eta horietako askok gure erakundera jotzen dute, administrazio publikoek, udalek, bereziki, haien erreklamazioen aurrean duten pasibotasuna edo eraginkortasunik eza dela-eta.

Horretaz gainera, kexa espedienteak berririki behar izaten ditugu maiz, planteatutako arazoen konpondu gabe jarraitzen dutelako, nahiz eta Administrazioak arazoa konpontzekotan zegoela adierazi, eta baita Administrazioak arazo horiek konpontzeko konpromisoa hartu duenean ere.

Administrazioak arlo horretan duen esku-hartzea ez da espero bezain eraginkorra eta, izapidetutako zenbait espedientetan, jarrera desegokiak antzeman dira:

- Maiz, arazoa gutxiesten da, ez zaio ematen eman behar zaion garrantzia. Kexak “molestia soiltzat” jotzen dira maiz, edo “subjektibotzat” hartzen dira edo kexa aurkeztu duenaren nortasunari egozten zaizkio.

- Kasu askotan, lege betebeharrak “ahaztu” egiten dira. Betebehar horiek adierazpen orokorretan azaltzen dira, batzuetan, baina haien norainokoa eta esanahia jurisprudentziako doktrina berri- an zehazten dira. Doktrina horren arabera, kutsadura akustikoak herritarren funtsezko eskubide bat urra dezake: intimitaterako eta egoitzaren bortxaezintasunerako eskubidea.

- Batzuetan, inhibizio publikoa justifikatzen da, arazoa partikularren arteko harremanen esparru pribatuari dagokiola ulertzen delako, nahiz eta udalek eskumena duten ingurumen eta osasungarritasun publikoaren arloan eta administratuen jar-

duera pribatueta esku hartzen ahal duten, lasaitasuna hausten denean edo hori hausteko arrisku larria dagoenean, hura berrezarri edo mantentze aldera.

- Ez dira dauden arauzko tresnak erabiltzen. Horrela, zaratak edo dardarak sorrarazten dituzten jarduerak bete beharreko baldintza teknikoak ezartzen dituen ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretuari jarraikiz, udalek partikularrei eskatu behar diete onartutako gehieneko soinu mailak bermatzeko; arau horretan ezarritakoa ez betetzeak hartan ezarritako ondorioak erabakiko ditu.

Jarduera sailkatuen kasuan (tabernak, bereziki), udalaren kontrola irekitze lizentzia ematearekin bat amaitzen da gehiegitan, eta ez du zorrotasunez betetzen Legeak ezartzen dion osteko gainbegiratze jarduera.

Herritar askok helarazten digute zehapen prozedura bat diru neurriekin amaitzeak sortzen dien atsekabe handia; izan ere, isuna ordaintzea ez da oso nekeza ostalaritza jarduerentzat. Ez dute ulertzen nola ez diren establezimendu horiek behartzen jarduera gogaikarria saihestu edo mugatzera eta, hortaz, jarduerak arazo berbera sortzen jarrai- Halaber, dirudienez, udalerrri txikietan, giza baliabideen eta baliabide teknikoaren gabeziak jarduera gogaikarrien ikuskapena eta kontrola oztopatzen ditu.

Adierazitakoaren ondorioz, arartekoari egokia iruditu zitzaion ofizioz jardutea, Foru Komunitateko administrazioek kutsadura akustikoari aurre egiteko garatzen duten jardueraren inguruan.

Ofiziozko jarduketa horren helburua da ebaluatzea Foru Komunitateko administrazioek behar bezala zaindu eta kontrolatzen dituzten zaratagatiko eragozpenak sor ditzaketen jarduerak.

Hauek dira helburu espezifikoak:

- Ebaluatzea administrazio publikoek zaratagatiko eragozpenak sor ditzaketen jarduerak behar bezala zaindu eta kontrolatzen dituzten eta horretarako beharrezko bitarteko teknikoak dauzkaten.

- Jarduera sailkatuen jarraipena egitea. Aldian behingo ikuskapenak egitea (sonometria prebentiboak, ezarritako neurri zuzentzaileak kontrolatzea, etab.).

- Jarduketak, salaketak eta abarren aurrean.

- Bitartekoen horniketa eta nahikotasuna.

- Ebaluatzea administrazio publikoek lege betebeharrak betetzeko eskatzeko arauzko tresnak modu egokian erabiltzen dituzten, egoera kaltegarriak behar bezala egiaztatzen direnean.

- Badaezpadako neurriak ezartzea.
- Zehapenak ezartzea.
- Etab.

• Egungo araudi orokorraren eta udalerrri bakoitzeko ordenantzen nahikotasuna eta egokitasuna aztertzea:

- Neurri zuzentzaileak hartzea bermatzeko.
- Badaezpadako edo prebentzio neurri eraginkorrak hartzea ahalbidetzeko, egoera kaltegarriak egiaztatzen direnean.
- Egoki diren erantzukizunak eskatzeko, agintarien inhibizio kasuetan.

Foru Komunitateko administrazioen egokitasuna aztertu nahi den arren, egokia iruditu zaigu ebaluazioa 3.000 biztanletik gorako udalerrien jardueran oinarritzea, zehazki. Udalerrri horiek Nafarroako populazio osoaren % 75 osatzen dute ia.

Txosten hau egiteko, jarduketa hauek burutu ziren:

• Erakundeko teknikariek txosten bat egin zuten, kutsadura akustikoaren prebentzio eta kontrolaren inguruko erantzukizuna eta esku-hartze publikoa zehazten dituzten printzipio juridikoei buruz.

• Erakundeak azken bost urteetan izapidetu dituen zaratari buruzko kexa espediente guztiak aztertzea.

• 12 galderako galdetegi baten bidez egindako landa lana. Galdetegia 3.000 biztanletik gorako populazio eskubideduna duten Nafarroako 33 udalerriri eta 15 udalez osatutako ausazko lagin bati (udalerrri txikiagoak ordezkatzuz) egin zitzaion.

• Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari eskatzea Foruzaingoan aurkeztutako salaketei eta horien emaitzei buruzko informazioa. Egindako ikuskapenak, irekitako espedienteak, ezarritako zehapenak, hartutako badaezpadako neurriak, etab.

• Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariari zarata mapen aurreikuspenari buruzko informazioa eskatzea, eta ekintza planak idaztea, 37/2003 Legean ezarritakoari jarraikiz.

• Osasun Departamentuari eskatzea 135/1989 Foru Dekretuak ezartzen dion zarata kontrolatzeko jarduketan aldian behingo diseinuari buruzko informazioa. 135/1989 Foru Dekretuak zaratak eta dardarak sorrarazten dituzten jarduerak bete beharretarako jarduera teknikoak ezartzen ditu.

• Foruzaingoaren Joko eta Ikuskizunen Dibisioaren arduradunekin elkarrizketa erdiegituratua egitea. Dibisio horrek kutsadura akustikoa kontrolatzen du.

• Ingurumen Departamentuko Ingurumenaren Integrazioko Zerbitzuko zuzendariarekin elkarrizketa erdiegituratua egitea.

HAUSNARKETA JURIDIKOAK

1.- SARRERA

Arestian aipatu dugunez, nabarmenki egin du gora zarata sortzen duten jarduera gogaikarriekin lotutako keza kopuruak. Halaber, ohikoa da denboran irauten duten egoerak daudela egiaztatzea, Administrazioak horiek konpontzeko berariazko konpromisoa hartu zuen arren.

Tamalez, nahi baino gehiago dira arazoa gutxiesten duten jarrerak edo jarduteko lege betebeharrak —araudi aplikagarriak egitatezko zenbait baldintza daudenean ezartzen dituenak— “ahaztu” egiten dituztenak.

Horregatik, erakunde honek gai horri buruz hartzen dituen ebazpenetan (gero eta gehiago dira), zenbait hausnarketa orokor egiten ditugu hasteko; izan ere, gure ustez, hausnarketa horiek garrantzitsuak dira, planteatutako gaia dagokion testuinguruan kokatzeko eta administrazio publiko-
ei gai horri buruz ahal den neurrian sentsibilizatzeko laguntzeko.

Gaur egun, gehiegizko zaratak egunez zein gaez egiteak etxebizitza bateko bizilagunei eragiten ahal dien kaltearen larritasuna ezagutu behar dugu eta ezin dugu gutxietsi.

Egun, zarata da biztanleen bizi kalitatea gehien murrizten duten elementu kutsagarrietako bat, zalantzarik gabe. Horretaz gainera, auzokideen artean egon ohi diren etengabeko istiluen faktore erabakigarri da. Egiaztatu ahal izan denez, pertsonen osasun fisikoari eta mentalari eragiten die, eta ondorio eta asaldura psikologikoak eta sozial larriak eragin ditzake.

Tradizionalki, zarataren ondorioak molestia soiltzat jo dira. Gaur egun, ordea, zarataren eta gaixotasunen artean erlazioa dagoela baieztatu daiteke. Medikuntza literatur espezializatuaren arabera, gehiegizko zaratak pairatzeak hauek sortzen ditu, Bartzelonako Probitzi Auzitegiaren 2006ko martxoaren 20ko zigor arloko epaiak espresuki adierazitakoari jarraikiz: entzumen traumatismoak eta galerak, bertigoak, nerbio sistema zentralako asaldurak, arnasketa arazoak, bihotzeko arazoak, hipertentsioa, nekea, buruko minak, loezina, kitzikortasuna, sumingarritasuna, errendimendu fisiko eta intelektualik eza...

Ondorioz, ingurumen osasuneko tratatu idazleek gero eta arreta handiagoa jartzen dute zaratak eta eragozpenak kontrolatu eta maila onargarrietara murrizteko dagoen beharrean.

Europako Batasunak onartu du zarataren arazoari lehentasun eskasa eman zaiola tradizionalki.

Hala jasotzen da Europako Batzordearen “Zarataren aurkako etorkizuneko politikari” buruzko liburu berdean eta Europako Parlamentuaren eta Ingurumeneko Zarata Ebaluatu eta Kudeatzeari buruzko Kontseiluaren 2002/49/EE zuzentarauan; horren arau transposizioa Zarata buruzko 37/2003 Legearen aldarrikapenaren bidez egin zen gure barne antolamenduan.

2.- ETXEKO INTIMITATEA URRATUTAKO OINARRIZKO ESKUBIDE GISA

1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioaren 45. artikulua ingurumen egokiaz gozatzeko eta bizi kalitatea izateko eskubidea aitortzen du; halaber, 43. artikuluan, osasuna babesteko eskubidea aipatzen du.

Zarataren eta kutsadura akustikoaren arazoa ez dago soilik ingurumenarekin lotuta; osasunarekin, ordena publikoarekin eta hirigintzarekin estuki lotuta dago, baita ere.

Baina Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 90eko hamarkadan emandako epaietatik aurrera (1990eko otsailaren 21eko, 1994ko abenduaren 9ko eta 1998ko otsailaren 19ko epaiak), aldaketa kualitatibo bat gertatu da ukitutako eskubidearen zehazteari eta kutsadura akustikotik eratorritako ondorio juridikoen garrantziari dagokienez.

Estrasburgoko Auzitegiaren arabera, oso kaltegarriak diren inmisio horiek, pertsonari (bere egoitzan) eragiten diotenenean, pertsona horren intimitaterako eskubidearen benetako erasoak edo laido inkonstituzionalak dira.

Intimitaterako eskubidea bakean gauzatzeko, bereziki, etxebizitzaren barruan, kanpoko eraso asaldatzaileen aurkako esparru seguru bat behar da. Eraso horien artean, gehiegizko edo/eta etengabeko zaratak daude, zalantzarik gabe, nahiz eta horiek, printzipioz, legezko jarduerak sortu (legezko izateari uzten diotenak maila zehatzak gainditzen dituztenean).

Doktrina hori gure Konstituzio Auzitegira zabaldu da eta, Konstituzioaren interprete goren eta bertan aitortzen diren oinarrizko eskubideen bermatzaile gisa, zera baieztatu du (maiatzaren 24ko 119/2001 KAE): “ezin bortxatuzko etxebizitzatzat joko da gizabanakoak, usadio eta konbentzio sozialen menpe egon beharrik gabe, bere askatasunik intimoena gauzatzeko erabiltzen duen eremua. Hortaz, oinarrizko eskubide horren helburu espezifikoak hauxe da: babestea bai eremu fisiko, bere horretan, bai hor bizi den pertsonarekin lotutako guztia.”

Konstituzio Auzitegiak zera adierazten du: “Konstituzioak ez ditu eskubide teoriko hutsak edo

irudimenezko eskubide hutsak ematen; Konstituzioak benetako eskubide eraginkorrak ematen ditu. Hortaz, aipatutako oinarrizko eskubide horren babesa bermatu behar da (EKren 18.1 art.), hirugarren pertsonen esku-sartzeen eta teknologikoki aurreratutako gizarte batetik erator daitezkeen arriskuen aurka.”

Halaber, Auzitegi Gorenaren 1. Salak apirilaren 29an emandako 431/2003 Epaiak ideia hau azpimarratzen du: “Legeen interpretazio ebolutiboa egin behar da. Interpretazio horrek kontuan hartuko du legeak aplikatuko diren garaiaren errealitate soziala eta, interpretazio hori egiteko, lege horien espirituari eta helburuei arreta jarriko zaie, bereziki. Kode Zibila interpretatzeko arau horiek, arauak Konstituzioari egokitzeko oztopo izan ordez, Konstituzioa sustatu egiten dute; izan ere, arau guztiak interpretatu eta aplikatzeko, Konstituzioaren testua hartu behar da kontuan.”

Planteamendu horretan oinarrituta, Auzitegi Gorenak dio zaratagatiko eragozpenak ohorerako eskubidearen, norberaren nahiz familiaren intimitaterako eskubidearen eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Foru Legearen 7. artikuluan ezarritako norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidearen kalteen barnean daudela eta, hortaz, arau horretan ezarritako kalte-ordain moralak jasoko direla.

“Intimitateari eraso egitea ezin da soilik gure intimitatearen “publicatiotzat” jo, gaur egun; izan ere, intimitaterako eskubidea gure bizitza pribatua saihestu daitezkeen eta jasan beharrik ez dugun asaldurarik eta kanpo esku-sartzerik gabe garatzeko eskubide gisa ulertu behar da. Intimitatearen babesa ezin da mugatu bizitza pribatuaren zabaltea edo bizitza pribatuaren esparruan baimenik gabe sartzea saihestu eta debekatzera. Legez kontrako esku-sartzeak dira familiaren bakea eta etxekoen arteko bizitzaren edo bizitza pribatuaren ingurunea larriki kaltetzen duten modu edo prozedura berriak eta, horien aurrean, babes judiziala egon behar da.”

Ez dugu Konstituzioak egiten duen osotasun fisikorako eta moralerako eskubidearen (EKren 15. art.) eta egoitzaren bortxaezintasunerako eskubidearen (EKren 18.2 art.) banaketaren doktrina analisisa egin nahi. Hala ere, garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea ukitutako eskubidea, “etxeko intimitaterako” eskubide deritzoguna zenbait egileen terminologia erabilia, ahalik eta gehien babes- behar den pertsonaren oinarrizko eskubide bat dela. Hala jasotzen da Konstituzioaren I. tituluko 2. kapituluko 1. atalean (EKren 53.1 eta 53.2 art.ak).

3.- UDALEN FUNTSEZKO EGINKIZUNA, KUTSADURA AKUSTIKOARI DAGOKIONEZ.

Agian, lehenengo hurbilketa batean irudi deza- ke jurisprudentziako eta konstituzio doktrina hori legez kontrako esku-sartzea sortu duen agentea herritarrari zuzenean kalte egiten dion partikularra- rekin —enpresaren edo establezimenduaren titula- rrekin— kasu ezberdinetan identifikatzeko hipotesian oinarritzen dela. Hala ere, aurreratu behar dugu ez garela partikularren arteko harremanen esparruan eskusiboki mugitzen, administrazioek, eta udalek, bereziki, “jarduera gogaikarrien” arloan dituzten gainbegiratze eta kontrol eginkizun garrantzitsuak direla-eta.

Konstituzio Auzitegiaren 119/2001 Epaiaren arabera, “norberaren eta familiaren etxe barruko intimitaterako oinarrizko eskubideari ematen zaion babesa izan behar du objektiboki saihegarri edo jasanezin gisa sailka daitezkeen —nortasuna libreki garatzea saihestu edo oztopatzen duten neurrian— zarata maila zehatzak luzaroan jasate- ak, betiere kaltea erakunde publikoen, zeinei kal- tea egotz baitakie, egite edo ez-egiteen ondori- oz sortzen bada.”

Auzitegi Gorenaren 3. Salak 2003ko apirilaren 10ean eman zuen epaian espresuki gogorarazten denez, udalek funtsezko eginkizuna dute herrita- rrak kutsadura akustikoaren aurrean babesteari dagokionez. Hala ondorioztatzen da toki araubide- aren oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.f) eta 84.1.b artikuluetan esleitzen zaizkien eskumenetatik. Izan ere, biek ematen dute administratuen jarduera pribatu- etan esku hartzeko ahalmena, arestian aipatutako babes juridikoa jasotzen ahal duten ondasunak edo interesak babeste aldera. 25.2.f) artikulua ingurumena eta osasungarritasun publikoa babes- teari buruzko eskumenak gauzatzearen ingurukoa da eta 84.1.b artikulua 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren bidez onetsitako toki korporazioetako zerbitzuen Erregelamenduaren 1.1 artikulua- rekin lotuta dago.

Halaber, udalei dagokie administrazioek zaratei buruz ematen dituzten arau guztiak betetzea eta, horretaz gainera, euren ordenantzak aldarrika ditzakete.

Nafarroako araudiari dagokionez, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 34.1 b) artikulua udalei osasun publikoko esku- menak esleitzen dizkie, eta eskumen horien bar- nean zaraten eta dardaren osasun kontrola sar- tzen da.

Halaber, zaratak eta dardarak sortzen dituzten jarduerak bete behar dituzten baldintza teknikoak

ezartzen dituen ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretuak pertsoneri eragozpenak sor diezazkieteken edo haien osasunerako edo ongizaterako arriskutsuak diren jarduerak eta elementuak, oro har, arautzen ditu, udalek ordenantzen bidez gerora egin dezaketen garapena baztertu gabe.

Foru Dekretu horri jarraikiz, udalek partikularrei gehieneko soinu mailak bermatzeko eskatu behar diete, eta lege horrek ezarritakoa ez betetzeak jarduketa hauek ekarriko ditu (26. art.): “a) Neurri zuzentzaileak nahitaez hartzea, egiaztaturiko zaraten nahiz dardaren maila kasu bakoitzean arintzeko edo deuseztatzeko; b) jarduera gauze etetea, arau-hauste larrien kasuan, eta jarduera guztiz etetea, oso arau-hauste larrien kasuan, baldin eta egiaztatutako akatsak zuzentzen ez badira; eta c) kasuan kasuko zehapenak ezartzea.”

Mota horretako eragozpenak sor ditzaketan jarduera gehienek **jarduera sailkatuei buruzko arauak** bete beharko dituzte. Hortaz, udalaren kontrola ez da dagokion lizentzia ematearekin amaitzen. Araudi horretan ezarritakoa betetzeko, irekitzeko lizentzia emateaz gain —jarduera sailkatuen espedienteaz izapidetu eta gero—, jarduera eraginkortasunez gainbegiratu behar da, hasiera batean onetsitako neurri zuzentzaileak mantentzen direla zainduz eta horiek jarduerak izanen dituen aldaketetara moldatuz.

2005eko uztailaren 1a baino lehen, mota horretako jarduerak hauek arautzen zituzten: Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legeak eta hura garatzen duen Erregelamenduak, otsailaren 15eko 32/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoak. Data horretatik aitzina, Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legeak arautzen ditu.

Jarduera sailkatuaren lizentziak prozedura espezifiko bat izapidetzeko eskatzen du. Prozedura horretan, txosten teknikoek garrantzi berezia dute; horregatik, jarduera sailkatuei buruzko foru legea garatzeko Erregelamenduak arautze zehatza zuen.

Arau horiek eta egungo 4/2005 Foru Legeak elkarriz lotuta dauden bi baimen izapide ezberdin osatzen dituzte: jarduera lizentzia eta jarduera irekitzeko lizentzia. Lehenengoaren helburua da interesatuak aurkeztutako proiektu teknikoak legeak ezartzen dituen ingurumen eta osasungarritasun baldintzak betetzen dituela egiaztatzea. Fase horretan, zenbait txosten tekniko sartzen dira, jarduera kaltegarria izanen ez dela ziurtatzeko behar diren neurri zuzentzaileak ezartzen ahal dira eta gainerako interesatuei eta izan daitezkeen ukituei

entzunaldia ematen zaie. Bigarren fasea jarduera irekitzeko lizentziak osatzen du. Horrek bermatzen du, jarduera hasi baino lehen, instalazioa onetsi den proiektura eta jarduera lizentzian ezarritako neurri zuzentzaile osagarrietara egokitzen dela. Bigarren lizentzia horren helburua da egindakoa eta baimendutakoa bat etortzen diren egiaztatzea.

Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legeak jarduera horien ikuskerapena jarduerak kokatzen ziren eremuari zegokion udalaren esku uzten zuen. Jarduera sailkatuen goi zainketa Nafarroako Gobernuaren Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari esleitzen zitzaion.

Aipatutako legearen 17. artikulua haxe ezartzen zuen: “Jardueraren funtzionamenduan akatsak antzematen badira, alkateak jardueraren titularrari horiek zuzentzeko eskatuko dio, epe bat emanda. Epe hori sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere, behar bezala frogatutako kasu berezietan izan ezik.”

Ezarritako neurri zuzentzaileak uneoro eragin-kortasunez hartu direla bermatzeko, foru lege horren 21. artikulua haxe ezartzen zuen: “Funtzionatzen ari den zein aldi batez geldituta edo behin betiko itxita dagoen jarduera baten titularrak foru lege horri jarraikiz ezarri zaion neurri zuzentzailearen bat hartzeari uko egiten dionean, ekintza hori eskatu duen agintaritzak, aurretiaz ohartarazita, agindu hori subsidiarioki gauzatzen ahalko du, erantzulearen kontura; egintza subsidiario horren ondoriozko gastuak premiamendu-bidetik eskatzen ahalko ditu.”

16/1989 Foru Legearen 22. artikulua zera ezartzen zuen, halaber:

“Bidezko zehapenak ukatu gabe, alkateak jarduera sailkatuen bat irekitzeko lizentziarik gabe ari dela jakiten duen unean bertan, jarduketa hauek burutuko ditu:

a) Jarduera baimendu ahal bada, jardueraren titularrari egoera arautzeko eskatuko dio, epe bat emanda. Epe hori sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere, behar bezala frogatutako kasu berezietan izan ezik. Horretaz gainera, alkateak jarduerari itxi dezake, egoerak hartara behartuz gero.

b) Jarduera ezin bada baimendu, indarrean den arautegi sektoriala edo dagozkion udal ordenantzak ez betetzeagatik, jarduera itxiko da, interesatuak esan behar duena entzun ondoren.”

Hori guztia legokiekeen zehapenez gainera eta, hala badagokio, behar diren aurreneurri hauek hartu eta gero: “Ezartzen ahal den ebazpena bete-

tzen dela, eta nolahi ere, legeak beteko direla bermatzeko aurreneurriak: jarduera guztiz edo parte batez etetea; lokalak edo instalazioak ixtea; fidantza galdatzea” (37. art.).

Indarrean den 4/2005 Foru Legearen 60.3 artikulua ezartzen du kasuan kasuko udalari eta, bestela, txosten lotesleak igorri dituzten departamentuei dagokiela jarduera sailkaturako udal lizentzia (Ingurumen Departamentuaren alde aurreko txostenik gabekoa) behar duten jardueren ikuskapena egitea (4.D eranskina). 4/2005 Foru Legearen 60.1 artikuluarri jarraikiz, Ingurumen Departamentuak ikuskatu behar ditu honako hauek behar dituzten jarduerak: ingurumen baimen integratua, ingurumen ukipenatarako baimena, ingurumen eraginaren ebaluazioa edo jarduera sailkaturako udal lizentzia (Ingurumen Departamentuaren alde aurreko txostena izandakoa).

Halaber, 4/2005 Foru Legearen 70.2 artikulua ezartzen duenari jarraikiz, udalak udalerrri osoan egiten diren jarduera sailkatuen funtzionamenduan antzemandako akatsak zuzentzeko agindu behar du. 72. artikulua ezartzen du neurri zuzentzaileak nahitaez betearaziko direla, aurretiaz jakinarazita, enpresak edo lokalak ezarritako neurri zuzentzaileak hartzeari uko egiten dionenean.

Agindu hori subsidiarioki gauzatzen ahalko du, erantzulearen kontura, eta egintza subsidiario horren ondoriozko gastuak premiamendu-bidetik eskatzen ahalko ditu.

Zehatzeko araubide aplikagarria 4/2005 Foru Legearen 74. artikuluan eta hurrengoetan arautzen da. Jarduera arautzeari buruzko 67.2 artikulua goian transkribatutako 16/1989 Foru Legearen 22. artikulua dioena jasotzen du, gutxi gorabehera.

Horretaz gainera, gogoan izan behar dugu administrazioaren zehapen ahalmenak agindu-indarra duela eta hartutako zehatzeko ebazpena betearazpen subsidiarioaren mekanismoen bidez gauzatu behar dela, boluntarioki bete ezean. Administrazio organoen eskumena utziezina da (30/1992 Legearen 12. art.) eta eraginkortasunez gauzatu behar da, legee eta zuzenbideari erabaten egirik, Konstituzioak dioen bezala (EKren 103. art.), bereziki, herritarren oinarrizko eskubideei kalte egiten zaienean.

Auzitegi Gorenak, arestian adierazi dugun kutsadura akustikoaren ondorioz kaltetutako oinarrizko eskubideen ikuskeratik eta, ondorioz, horrek merezi duen legez kontrako esku-sartzetat jotzearen ikuspegitik, lege multzo berri bat osatu du, udalei kontrol eta gainbegiratze betebeharrak ezartzen dizkieten xedapenetatik abiatuta. Lege multzo hori administrazioak kutsadura akustikoa-

ren inguruan duen ekintzarik ezari eta Estatuko eta autonomietako zuzenbideek toki administrazioei esleitzen dieten eginkizun prebentiboari buruzkoa da, eta jarraian laburbiltzen da:

Auzitegi Gorenaren 3. Salak 2003ko maiatzaren 29an emandako epaiak auzialdiko Auzitegiaren epaiaren aurka jarritako kasazio errekurtsua onetsi zuen. Auzialdiko Auzitegiaren epaiak Sevillako Udalak herritar batek aurkeztutako erreklamazioa ustez ezezteagatik jarritako errekurtsua ezetsi zuen. Herritarrak diskoteka bat berehala ixteko eskatzen zuen, bai eta ondare erantzukizuna ere, haren oinarrizko eskubideak urratzeagatik; horregatik guztiarengatik, 3.003.500 pezetako kalte-ordaina ordaintzeko eskatu zuen.

Auzitegi Gorenak baieztatzen duenez, “Eztabaidaren oinarriak hauek dira: udalak haren eskumeneko arlo batean agertutako pasibotasunaren ondorioz sortu den oinarrizko eskubideen urraketa eta urraketa horrek sortutako kalteen kalte-ordaina”.

Arestian aipatu dugunez, kutsadura akustikoa ahalik eta gehien babestu behar den eskubide konstituzional baten kaltetzat jotzeak (EKren I. tituluko 2. kapituluko 1. ataleko 18.1 art.) hauxe ahalbidetzen du: pertsonaren oinarrizko eskubideak Administrazioaren egintzen aurrean judizialki babestea, babes juridikzionalaren auzi administrazioarekiko prozeduraren bidez. Auzitegi Gorenak hori onesten du, zera baieztatuz:

“Epaia argudioak arbuiatu behar dira. Epaiak zera ezartzen zuen: alde batetik, aipatutako eskubideen kaltea ez du Administrazioak egin, diskotekaren titularrak baizik; eta, beste alde batetik, Administrazioak neurri zehatzak ez hartzea prozesu horretatik kanpo gelditzen da (horren ezagutza honetara mugatzen da: oinarrizko eskubideak administrazio zuzenbideari loturiko Administrazioaren egintzen gainetik babestera).”

Azken batean, epaiak zera baieztatzen du: “Udalaren pasibotasuna Estatuko araudiak ingurumen arloan udalei esleitzen dien eskumenaren eta erantzukizunaren utziera da.

Jarduketetan frogatu daude, errekurtsio-egileak adierazitako epean (1991tik 1997ra bitarte), auzi-jartzailearen egoitzan kalte larriak zuzenean eragin zituzten zaratek eta dardarek sortutako kutsadura akustikoari buruz....

Hortaz, udala behartzen da diskoteka itxita mantentzea, udal teknikariek zaratek eta dardarek gertuko eta alboko etxebizitzetara ez egiteko neurri eraginkorrak dituela egiaztatzen duten arte, eta demandatzaileari 1.410.500 pezetako kalte-

ordaina ordaintzera, egoitzaren bortxaezintasuneko eskubidearen urraketaren ondorioz pairatutako kalteengatik...

Kalte horien oinarriak hauek dira: ohiko egoitza erabiltzeko ezintasuna eta eragozpenak saihesteko beste egoitza berri bat bilatu behar izatea edo, egoitza berebean jarraituz gero, bizitza pertsonalean eragindako deserosotasun edo sufrimendu moral eta fisikoa.”

Halaber, Auzitegi Gorenaren 1. Salak 2003ko apirilaren 29an eman zuen epaiak toki administrazio demandatua behartu zuen, modu solidarioan, soinu inmisio gogaikarriak sortu zituen merkataritzako entitatearekin, kontratuz kanpoko erantzukizunagatiko diru kopuru zehatza ordaintzera “enpresaren jarduera gogaikariaren aurkako auzia jarri zutenen kalteengatik eta udalak horiek saihesteko neurriak ez hartzeagatik...”

Auzitegiak onartu du erantzukizun zibil solidarioa aitortzen duen babes judizial hori honela lor daitekeela: 1/1982 Lege Organikoak ematen duen babesaren bidez (intimitaterako eskubidearen legez kontrako esku-sartzea) edo kontratuz kanpoko erantzukizuna gauzatzearen bidez.

Azkenik, Auzitegi Gorenaren 3. Salak 2003ko apirilaren 20an emandako epaia administrazioaren uestezko ekintzarik ezan (toki administrazio batek zehapen prozedura batean behin-behineko neurriak edo aurreneurriak ez hartzearen ondorioz) oinarritzen da eta, bertan, administrazio horri neurri horiek ez hartzeagatik sortutako kaltea leporatzen zaio; izan ere, administrazio prozedura osatu duten datu faktikoek udalerraren babesa eskatzen zuten, soinu inmisio kaltegarriak eteteko.

Legeak zehapen prozedura baten izapidetzean hartzen ahal diren behin-behineko neurri zehatzak ezartzen ditu: kaltea edo arriskua sortzen jarraitzea saihesten duten kontrol neurriak; aparatuek edo ekipoak zigilatzea; instalazioak aldi baterako, partzialki edo osorik ixtea; jarduerak etetea...

Auzitegiak gogorarazten duenez, behin-behineko neurrien helburua bikoitza da: alde batetik, eman litekeen ebazpenaren eraginkortasuna bermatzea; eta, beste alde batetik, arau-haustearen ondorioen iraunkortasuna saihestea (zehapen prozedurari buruzko 1398/1993 Errege Dekretuaren 15. art.), kasu guztietan, proportzionaltasun irizpideak kontuan hartuz (“kasu bakoitzean lortu nahi diren helburuen garrantzira, proportzionaltasunera eta beharretara makurtzea”), eta egitate zehatzak, jokoan diren interes kontrajarriak, egindako zaratent maila, iraupena, aurreko zehapenak eta akatsak zuzentzeko eskakizunak baloratuz.

Ildo horretan, Auzitegi Gorenak 1997ko otsailaren 3an eta 1999ko urriaren 9an emandako epaiak adierazi zuten, administrazioak zehapen espedienteetan izandako kautelazko jardueraren xedea egintza ez-zilegia ez betetzea edo, betetzekotan, haren ondorioak luzatzea edo hura errepikatzea saihestea zen...” zehapen prozedurari hasiera emateko akordioan, haren gertaera erabakigarriak deskribatzen dira zehatz-mehatz... behin baino gehiagotan salatutako entitatearen jardura gogaikarritzat jotzen da; horrek jardura ixteko badaezpadako neurria berehala hartzea justifikatzen du, haren iraupena eta babesten saiatzen diren interes orokorrak (herritarrek gauez atsedean hartu ahal izatea, kasu) kontuan hartuta, ez baita gehiegizkoa... lortu nahi den helburuari eta gertatutako inguruabarrei buruzko arrazionaltasun judizio batean oinarrituz, eta Konstituzioaren eta Auzitegi Gorenaren doktrina zorrozki betez.”

Horretaz gainera, arestian esan dugunez, Jurisprudentziak behin baino gehiagotan gogoratu du behin-behineko neurrien helburua bikoitza dela, zehapen prozeduran: alde batetik, jaso daitekeen zigorraren eraginkortasuna bermatzea; eta, beste alde batetik, arau-haustearen ondorioen iraunkortasuna edo, nahi bada, egoera kaltegarriak irautea saihestea.

4.- BEHIN BAINO GEHIAGOTAN ERREPIKATZEN DIREN EDO INTERES BEREZIA DUTEN BESTE ARAZO BATZUEI BURUZKO AIPAMEN LABURRA.

Ikusiko dugunez, herritarrek gero eta arazo gehiago helarazten dizkigute **aisialdirako lokalek, etxabeek edo “txabiskeek”** sortzen dituzten eragozpenekin lotutako kutsadura akustikoari buruz.

26/2001 Foru Legeak aldatu zuen jendaurreko ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen 2/1989 Foru Legearen 1.2 artikulua. Aldaketa horren arrazoia hauxe izan zen, besteak beste: aurre egin behar zaio sortu den problematika bati, hots, sarbide murriztuko lokal eta instalazioetan izaera sozialeko josteta jarduerak antolatzean sorturiko problematikari, bereziki segurtasun baldintzei, osasungarritasunari eta hirugarrenentzako enbarazuei dagokienez.

Aldaketa horrek, hortaz, dibertsio edo jostetarako jarduerak egiten dituzten eta jardura sailkatuen esparrutik at gelditzen diren sarbide murriztuko lokal horiek arautu zituen.

Agindu horrek zera ezartzen du, gaur egun: “Dibertsio edo jostetarako jardura horiek egiten dituzten lokalek behar bezalako baldintza teknikoak bete behar dituzte, hirugarrenei enbarazurik ez

egiteko eta pertsonen zein ondasunen segurtasuna bermatzeko, batez ere hauei dagozkienak: egituren sendotasuna, instalazioen funtzionamendua, suteen kontrako prebentzio eta babes neurriak eta osasungarritasun eta higieena. Horietarako, bada, udalaren baimena beharko dute lokal horiek.”

Zenbait udalek mota horretako lokalak arautu dituzte, udal ordenantzen bidez. Eta horietako batzuek arestian aipatutako udal lizentzia emateko prozedurari buruzko zenbait alderdiren inguruko zalantzak helarazi dizkigute.

Goragarria da autonomia erkidegoetako administrazio batzuek ordenantza-eredu bat onesteko hartu duten ekimena; izan ere, toki entitateek orientabide edo eredu gisa erabil dezakete.

Herrietako jaien inguruko irizpide bat ezartzen saiatu gara, udalek jarduketa urrats gisa erabili ahal izateko. Irizpide hori arauzko xedapenetatik eratorritako printzipioetatik atera dugu.

Herrietako jaietan normalean baimendu ezin diren egoerak baimentzen dira: tabernak ixteko ordutegia zabaltzen da, tabernei musika kalera ateratzen uzten zaie...

Egiazki, ikuskizun publiko eta josteta jardueren ordutegi orokorra araupetzen duen irailaren 23ko 201/2002 Foru Dekretuak establezimendu mota ezberdinak ireki eta ixteko orduak ezartzeaz gain (2. artikulua), zera dio 6.2 artikuluan: “Udalek ordutegi bereziak baimentzen ahalko dituzte honako kasuotan eta dagokien ebazpen administratiboa ezartzen diren mugekin:

a) Herriko jaietan... Ordutegi zabaltzea Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari eta herriko Udaltzaingoari jakinarazi beharko zaie”...

8. artikulua araberak, administrazio baimeak “behin-behingo egindakotzat joko dira; beraz, ez dira eskubideen deklaraziotzat hartuko eta ezeztatzen ahal izanen dira, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, organo eskudunak emanen duen ebazpen arrazoituaren bidez. Ezarritako baldintzak edo baimenak emateko finkatutako oinarriak ez betetzeak ekarriko du ordutegi berezirako baimena galtzea, dagokion administrazio erantzukizuna ezertan galarazi gabe...”

Beste alde batetik, apirilaren 29ko 1222/1987 Foru Aginduak, ostalaritzako instalazio mugikorrek edo desmuntagarriak arautzeari dagokionez, zera ezartzen du 7.3 artikuluan: “(...) goiko edo aldame-neko etxebizitzetan, ezin izanen da 36 dBAtik (8etatik 22etara) eta 30 dBAtik (22etatik 8etara) gorako soinu inmisio mailarik sortu, herriko jaietan eta adierazitako garrantzi bereziko beste egun batzuetan izan ezik; egun horietarako, udalak bai-

mentzen dituen gehieneko soinu mailak eta ordutegiak zehaztu beharko ditu espresuki.”

Hortaz, aipatutako araudiak zenbait salbuespen onartzen ditu ostalaritzako establezimenduen araudi orokor arruntean, egoera zehatzei, hala nola herriko jaietara, dagokienez.

Arau orokorraren salbuespen horiek mugarik ezaren onarpena ekarri ordez, ordutegi berezi baten edo/eta gehieneko soinu inmisio maila baten baimen zehatza dakarte, ezartzen den mugaketarekin (hori ez betetzeak ondorio juridikoak izanen ditu: baimena baliogabetzea, erantzukizun administratiboa...).

Aipatutako xedapenek gehiengoak (gehieneko mugak) arautu beharko lituzketen ala ez alde batera utzita, argi eta garbi dago udalek baimendutako gehieneko soinu mailak eta kasuan kasuko ordutegi mugaketak espresuki zehaztu behar dituztela.

Bi udaletako **garbiketa eta zabor biltzea zerbitzuek erabiltzen dituzten kamioiek** sortzen duten kutsadura akustikoa ere planteatu zaigu.

Hemen, laburki aipatu behar dugu Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak erakunde honetan landutako kasuen antzeko auzi bati buruz 2003ko abenduaren 9an eman zuen epaia.

Epaia ebazpen bat da, Bilboko bizilagun batek aipatutako auzitegiko administrazioarekiko auzitako salan aurkeztu zuen pertsonaren oinarrizko eskubideen babes juridikozko errekurtso baten ebazpena, alegia. Pertsona horrek udalari eskatu zion udalaren gaueko garbiketa lanek haren etxebizitzaren inguruan sortzen zituzten zaratak eteteko. Udalak ez zion herritarren eskaerari erantzun; hortaz, herritarrak aipatutako errekurtsoa jarri zuen, eskaeraren ustezko ukatzearen aurka.

Interesatuak Auzitegiari eskatu zion zuzenbidearen aurkakotzat jotzeko Bilboko Udalaren jarduketa —egoitzaren bortxaezintasunerako, intimitaterako eta osotasun fisikorako oinarrizko eskubideak urratzeagatik— eta, ondorioz, udalaren garbiketa lanak kamioi zisternadunen bidez gauez egitea berehala etetea agintzeko.

Epaia errekurtsoa onetsi zuen, zera adieraziz: “errekurtutako administrazioaren jarduketa baliogabetzea, Konstituzioaren 18. artikulua urratzen duelako”, eta “Bilboko Udala behartzea udalaren garbiketa lanak kale-garbigailuekin gauez ez egitea, errekurtso-egilearen etxebizitzaren ingurunean...”

Epaia oinarri juridikoa hauxe da: etxebizitzak eta horren inguruneak ezin dute kanpoko

eraso asaldatzaileen eraginik izan, eta ez dago horiek jasateko betebeharrak juridikorik, horiek legezko jarduerak sortu arren (legezko izateari uzten baitiote maila zehatzak gainditzen dituztenean).

Azkenik, Salak zera argudiatu zuen: “kasu honetan, administrazio demandatuak jakin du haren jarduketa batek gehiegizko zaratak sortzen dituela eta auzotarren oinarrizko eskubideak urratu ditzakeela, eta ez du egiaztatu zaratak sortzen dituen egoera eten edo arintzeko ezintasun materiala.”

Auzitegiak zera ondorioztatu du : “(...) zarata interes publikoko jardueraren batek, garbiketa zerbitzuak, alegia, sortzen duen arren, ez da inon ere jasotzen ezin direla bateratu intimitatea eta egoitzaren bortxaezintasuna eta garbiketako zerbitzu publikoa, zerbitzu hori mekanismo isilen bidez edo, gutxienez, zarata gutxiago sortzen duten mekanismoen bidez hornituz gero. Horregatik guztirengatik, sala honek ulertzen du EKren 18. artikuluan jasotzen den etxeko intimitaterako eskubidea urratu dela.”

Adierazitakoari jarraikiz, erakunde honek zenbait gomendio egin dizkie ukitutako udalei, zerbitzu publikoak mekanismo edo metodo isilagoez hornitzeko, herritarren oinarrizko eskubideak benetan babesten direla bermatze aldera.

Partikularren arteko harremanen esparruan, kutsadura akustikoarekin lotutako zenbait arazo sortzen dira. Arazo horiek modu ezberdinean lantzen dira, erakunde honen esku-hartze aukeren ikuspegitik. Horren barruan, zenbait egoera gogakarrak sar daitezke: etxeko animaliak, zenbait instalazio (hozteko tresnak, berogailua...), musika ozen jarri ohi duten bizilagunak, garajeen intsonorizazio desagokia...

Jarduera sailkatuei buruzko 32/1990 Foru Dekretuaren 2. artikuluan jasotako kasuetatik kanpo (neurri zehatzeko garajeak, 4 txakur baino gehiago edukitzea...), udalek jarduteko dituzten aukerak zigortu edo zehatzeko ahalaren esparruarekin lotuta daude, nagusiki. Horren helburuak, zehazki, hauek dira: gehiegizko zaratak sortzen dituen pertsonaren jokabide desagokia zigortzea eta etorkizuneari zehatzeko jokabideak saihesten saiatzea.

Egiazki, herritar batek bere etxebizitzan duen jokabideaz ari garenez, udalek ikuspegi prebentibo batetik esku hartzeko aukerarik ez dute ia. Kasu batzuetan, hala nola etxeko animaliak edukitzearen kasuan, neurri zehatzagoren bat har daiteke, arazoaren jatorria errotik konpontzeko edo/eta berriro sortzea saihesteko (etxeko animaliak etxebizitzatik edo lokaletik ateratzeko agindua, Administrazioarekiko auzietako Epaitegiari eskatuz,

hala badagokio, etxebizitzan edo titularraren onepena eskatzen duten gainerako lekuetan sartzeko baimena, baldin eta administrazio publikoaren egintzak derrigorrez betearazteko egoki bada, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen 8.5 artikuluan ezarritakoarekin bat).

Martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsi berri den Etxegintzaren Kode Teknikoaren 17. artikulua zarataren aurka ezartzen dituen oinarrizko babes eskakizun berriei utzi gabe, kasu batzuetan, arazoa eraginkortasunez konpontzeko, errekurtsioa auzibide zibilean aurkeztu beharko da (“auzokideen arteko harremanak” edo, hala bada, gorkio, Jabetza horizontalaren 49/1960 Legearen 7. artikuluan ezarritako aukerak).

Aipatu behar den beste alderdi bat, udalen jokabidearen inguruan sortu ziren zalantzak direla-eta, **tabernen jarduerari buruzkoa da, horiek ate-leihoak irekita dituztenean** eta, ondorioz, musika kanpora atera eta jendea kalean piltzeari bide ematen zaionean.

Herritar batek haren etxebizitzaren ingurunean, udako gauetan, bereziki, sortzen zen egoera jakinarazi zigun. Egin zituzten sonometriek agerian utzi zuten etxe barruan entzuten zen zarata legez onetsitakoa baino handiagoa zela; hala ere, jarduerari ez zitzaion inolako zehapenik jarri eta ez zitzaion egoera hori konpontzen laguntzeko inolako neurririk hartzeko eskatu.

Udalari planteatutako kexari buruzko informazio eskaeraren erantzuna jaso genuenean, instrukzio-egileak salaketa horren izapidetzean egitateak zehatzeko ezintasuna antzeman zuela jakinarazi zitzaigun; izan ere, zegokion araudia aztertu eta gero, ondorioztatu zuen tabernak ateak irekita eduki ahal zituela jarduera egiteko, baldin eta gehieneko barruko soinu maila 75 dBAkoa bazen, gehienez ere.

Hortaz, tabernak 75 dBAko barruko soinu maila gainditu zuela egiaztatzen zuen neurketa akustikorik egon ezean, ezin zitekeen zehapen espedienterik ireki, legez ezarritako mugak gainditu zirela egiaztatzen zuen datu objektiborik ez zegoelako.

Udalak egin zuen txosteneari adierazten zenez, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari horri buruzko kontsulta bat egin zion, Araubide Juridikoaren eta Kudeaketa Ekonomiko-Administrazioaren Zerbitzuari taberna “arruntek” haien jarduera ateak irekita egin zezaketen ala ez argitzeko eskatuz (zaratei buruz indarrean zen araudia kontuan hartuta). Zerbitzu horrek udalari bidali zion txostenaren kopia bat igorri zitzaigun. Jarraian,

bertan jasotzen ziren zenbait hausnarketa jasotzen ditugu, haien interesa dela-eta:

“Establezimendu, ikuskizun publiko eta josteta jardueren katalogoa onetsi eta enpresa eta lokalen erregistroak arautzen dituen irailaren 23ko 202/2002 Foru Dekretuak lokalak antolatu eta sektoreetan kokatzen ditu, haietan egiten diren jardueren arabera.

Aipatutako katalogoaren 4. artikulua tabernak definitzen ditu eta horiek musikaz girotu daitezkeela ezartzen du, barrenean gehienez ere 75 dBAko soinu maila badute.

Halaber, 7. artikuluan taberna bereziak definitzen ditu eta horiek musikaz girotu daitezkeela ezartzen du, baita amenizatu ere, barrenean gehienez ere 90 dBAko soinu maila badute.

Gainera, jendea departamentu edo atari estan-ko batetik sartuko da. Absortzio akustikoa eta ate bikoitza, itxiera automatikoduna, izanen du atari horrek.

Aurrekoa gorabehera, aipatutako katalogoak ezartzen du bertan egiten diren definizioek ez dutela ukatuko sektore bakoitzean aplikatzekoa den araudian ezarritakoa... Araudi hori ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretua da. Foru dekretu horrek zaratak eta dardarak sortzen dituzten jarduerak bete behar dituzten baldintza teknikoak ezartzen ditu.

Foru arau horren 10.4 artikulua ezartzen du, isolamendu akustiko egokia bermatzeko, jarduera

ate-leihoak itxita garatu behar denean, aireztapen behartuko sistema bat eduki beharko dela. Sensu contrario, ondorioztatzen da, zenbait kasutan, jarduera ate-leihoak irekita egiten ahal dela.

Baina, arau hori aztertu eta gero, esaten ahal dugu ez dela arautzen nola egon beharko duten ateen tabernaren jarduera garatzean musika jarrita badute.

Hala ere, lege ezarritako debeku bakarra lokal barreneko musikaren bolumenaren muga ez betetzearekin dago lotuta, 75 dBAk gainditzen ditue-nean.

Arau-hauste larria izanen da 10 dBAtan baino gehiagotan gainditzen direnean eta, arina, gainditzen ez direnean, Ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legeari jarraikiz.

Horregatik, eta taberna “arruntei” jarduera ateen irekita garatzeagatik zehapena ezartzeko aukerari dagokionez, ez dago zehapena ezartzeko tipifikazio zehatzik.

Dena dela, udalak tabernak jarduera egiten duen bitartean —musika jarrita duela—, ateen nola egon behar duten arautu nahi badu, dagokion ordenantzaren bidez egin beharko du.”

Hori hobetu beharreko antzeman dugun alderdi bat da eta, aurrerago, horri buruzko gomendio espezifiko bat emanen dugu.

UDALAREN ESKU-HARTZEA, ZARATEN ARLOAN**METODOLOGIA**

Udalek Nafarroako eta Estatuko kutsadura akustikoari buruzko araudia gauzatu eta hori betetzen den kontrolatu behar dute eta, horretaz gainera, arlo horri buruzko beren ordenantzak aldarrika eta betearaz ditzakete.

Hortaz, funtsezkoa da ezagutzea zeintzuk diren toki entitateek zaratei buruz egiten dituzten jarduera prebentiboak eta zuzentzaileak. Horretarako, udalei informazioa eskatu zitzaien, inkestagaldetegi baten bidez. Galdetegia hamaika galde-rez osatzen zen. Egindako galdetegia I. eranskinean jasotzen da.

Alderdi hauek ebaluatu nahi ziren:

- Zaratari buruzko udal ordenantzak zituzten ala ez.

- Salaketen maiztasuna.
- Ikuskapen prebentiboko eta zuzentzaileko politika.
- Salaketen emaitzak.
- Aurreneurriak hartzeko erabilitako irizpideak.
- Zehapen espedienteen maiztasuna eta emaitzak.
- Kexak maiztasunez sortzen dituzten arazoak.
- Ikuskapen bitartekoen nahikotasuna.
- Etab.

Galdetegia 48 udali igorri zitzaien, guztira.

3.000 biztanletik gorako populazio eskubideduna duten Nafarroako 33 udalerriei eta 15 udalez osatutako ausazko lagin bati (udalerrri txikiagoak ordezkaturaz).

INKESTA IGORRI ZITZAIEN UDALERRIEN ERANTZUNA

Inkestatutako udalerrri kopurua	3.000 bizt. >	3.000tik 10.000ra.	10.000tik 50.000ra	50.000 bizt. <	GUZTIRA
Inkestari erantzun diote	13	19	5	1	38
Ez diote inkestari erantzun	2	6	2		10
GUZTIRA	15	24	7	1	48

Inkesta igorri zitzaien 48 udalerrien % 80 (38) inkestari erantzun zioten eta galdetegia bete zuten; 10 udalek, ordea, ez zuten egin.

Hauek dira inkestari erantzun ez zioten udalak, hori egiteko behin baino gehiagotan eskatu zitzaien arren: Tafalla, Atarrabia, Berriozar, Aranguren, Azagra, Castejon, Fustiñana, Azkoien, San Adrian eta Sesma.

INKESTATUTAKO UDALERRIEK ORDEZKATZEN DUTEN POPULAZIOA

Inkestatutako udalerriek ordezkatzten duten populazioa	3.000 bizt. >	3.000tik 10.000ra	10.000tik 50.000ra	50.000 bizt. <	GUZTIRA
Inkestari erantzun diote	23.312	94.451	99.716	193.328	410.807
Ez diote inkestari erantzun	3.885	29.295	20.449		53.629
Inkestatutako udalerriak guztira	27.197	123.746	120.165	193.328	464.436
Nafarroako biztanleen artetik inkestari erantzun dioten udalerrietako populazioaren ehunekoa	% 15	% 76	% 83	% 100	% 70

Oro har, inkestari erantzun dioten udalerriek 410.800 biztanle ordezkatzten dituzte (Nafarroako biztanleen % 70).

Jarraian, udalerrietara igorritako galdetegiaren emaitzak jasotzen dira. Udalerriaren tamainak duen garrantzia dela-eta, egokia iruditu zaigu emaitzak biztanle kopuruaren arabera taldekatzea.

UDAL ORDENANTZAK

Lehenik, udalerriari eskatu zitzaien zaratekin, ordu mugaketarekin eta abarrekin zuzenean zein zeharka lotutako arauen bat egin zuten jakinarazteko eta, hala izatekotan, kopia bat igortzeko.

ZARATEI BURUZKO ORDENANTZAK EDO HORIEN INGURUKO ARAUREN BAT DUTEN UDALERRIAK

BEREZKO ARAUAK	3.000 bizt. >	3.000tik 10.000ra	10.000tik 50.000ra	50.000 bizt. <	GUZTIRA
Bai		5	2	1	8
Ez	13	14	3		30
Udalerri guztira	13	19	5	1	38
Baiezkoa %tan		% 26	% 40	% 100	% 21

10.000 biztanletik gorako udalerririk guztiek zaratei buruzko ordenantza eduki behar dute (135/1989 Foru Dekretuaren 2.2 artikulua). Hala ere, gaur egun arte, horietako hiruk baino ez dute onetsi: Iruña, Tuterak eta Burlata.

Oro har, Nafarroako udalerrien % 20k baizik ez dute zaratekin, ordu mugaketarekin zuzenean zein zeharka lotutako berezko arauen bat.

Iruñeak, Tuterak eta Cintruenigok zaratei buruzko ordenantza dute. Barañainek, bere alde-tik, jarduera lizentziak eta irekitzeko lizentziak emateko araua du. Arau horrek udalerriko jarduera

baimenduetan onartzen diren gehieneko soinu inmisioak jaso eta orduak eta ordu mugaketak zehazten ditu.

Mendabiako Udalak bide publikoaren zainketa-aren ordenantzaren kopia gehitu zuen. Horren kapitulu-tako batean, zaratei buruzko aipamen txiki bat egiten da.

Uharteko Udalak aisialdiko biltoki izateko loka-lak arautzen dituen ordenantzaren berri eman zigun eta Murchantek gelen eta lagunarteen funtzionamendurako ordenantza helarazi zigun.

Berak jarduera sailkatuei buruzko ordenantza aipatu zuen eta Milagroko Udalak txabiskeak edo festetako gelak arautzeko ordenantza berri bat egiten ari dela adierazi zigun.

Azkenik, Arronitzeko, Mendigorriako eta Milagroko udalek jakinarazi ziguten zenbait akordio

onetsi zituztela osoko bilkuretan, tabernei eta lokalei jaiegunetan ordutegia zabaltzea baimenduz.

IKUSKAPEN JARDUERAK

Ikusten ahalko dugunez, argi dago ikuskapen jarduerak eskasak direla (Iruñeko Udala salbuespena da).

AZKEN HIRU URTEETAN EGINDIREN IKUSKAPENAK

	3.000 bikt. >	3.000tik 10.000ra	10.000tik 50.000ra	50.000 bikt. <	GUZTIRA
IKUSKAPEN KOPURUA					
Salaketen ostean eskatutako ikuskapen kop.	0	65	45	1.849	1.959
Neurri zuzentzaileen osteko prebentzio kontrolen kop.	0	24	96	1.777	1.897
Urteko ikuskapenak guztira	0	69	141	3.626	3.836

Galdetegia bete duten hogeita hemezortzi udalerrietatik hamaiketik baino ez dituzte zenbait azken hiru urteetan zaratekin lotuta eginduzten ikuskapen jarduerak.

Iruñeko Udalak jakinarazi zigunez, hiru urtetan 3.626 ikuskapen eginduzten guztira. Gainerako udal guztien artean 210 baino ez zituzten eginduzten.

	3.000 bikt. >	3.000tik 10.000ra	10.000tik 50.000ra	50.000 bikt. <	GUZTIRA
Egindako ikuskapenen berri eman diguten udalen kop.	0	7	3	1	11
Ikuskapenen guztizkoaren urteko batez bestekoa	0	3	16		116

Hortaz, Iruñeko Udalak 1.200 ikuskapen eginduzten urtero, batez beste. Inkestari erantzun dioten 5.000tik 10.000 biztanlera bitarteko udalen kasuan, 16 kontrol inguru eginduzten batez beste. Azkenik, 3.000tik 10.000 biztanlera bitarteko udalerek 3 ikuskapen eginduzten batez beste.

Udalerririk gehienek eginduzten ikuskapenak ez diote erantzuten benetan prebentiboak diren irizpideen bidez planifikatutako politika bati. Kontrol prebentiboa, egotekotan, honetara mugatzen da: jarduera sailkatuaren lizentzia irekitzeko lizentzia eman baino lehen ezarritako baldintzen betetzearen hasiera bateko egiaztapenera; eta ez dira hasierako baldintzen mantentzearen aldirian behingo kontrolak eginduzten.

Kontrolak, eginduzten direnean, salaketa baten ondorio dira edo salaketa baten ondorioz eginduzten

aldeaz aurreko ikuskapen baten ostean dagozkion neurri zuzentzaileak ezarri diren egiaztatuzeko eginduzten dira.

Oro har, ikuskapenetan sonometriak eginduzten dira, nahiz eta zenbait udalerek objektibazio bitarteko egokirik gabeko ikuskapenak eginduzten.

Hiru udalerek baizik ez dituzte eginduzten mugatzaile-erregistratzaileen egiaztapenak. Tresna horiek taberna berezi eta ikuskizunetarako kafetegi guztiek eduki behar dituzte. Hona hemen aipatutako hiru udalerririk eginduzten mota horretako ikuskapen kopurua: Iruñeak 778, Tuterak 23 eta Vianak 5.

Zenbait udalerek onartzen dute ez dutela inolako kontrolrik eginduzten. Beste batzuek adierazten dute, horri buruzko kezarik aurkezten denean, Foruzaingoaren elkarlan edo Namainsaren ("Navarra de Medio Ambiente Industrial, S.A.") aholkularitza

eskatzen dutela, kontrol jarduerak egiteko behar diren teknikariak eta tresnak ez dituztelako.

Halaber, zenbait udalek adierazten dutenez, sonometriaren bat egiten dute aldiari behin, bizilagunek hala eskatzen dutenean, baina ez dituzte erregistratzen eta, hortaz, ezinezkoa da zenbaitzea.

JARRITAKO SALAKETAK

Udalei eskatu zitzaizkien herritarrek azken hiru urteotan aurkeztutako salaketak zenbatu edo horien zerrenda bat aurkezteko eta horiek sortu zituzten jarduera moten arabera sailkatzeko.

AZKEN HIRU URTEOTAN AURKEZTUTAKO SALAKETA FORMALAK

SALAKETA KOPURUA	3.000 bizt. >	3.000tik 10.000ra	10.000tik 50.000ra	50.000 bizt. <	GUZTIRA
SALAKETEN KOPURU OSOA	5	108	119	832	1.057
Aurkeztutako salaketen berri eman diguten udalen kop.	3	14	4	1	22
Salaketen urteko batez bestekoa	1	3	10	277	16
Urteko salaketak mila biztanleko	0,1	0,5	0,5	1,4	1,0

Hogeita hemezortzi udaletatik hogeita bik eman digute zaratei buruz aurkeztutako salaketen kopuruaren berri.

Iruñeko Udalak 277 salaketa jaso ditu urtero, batez beste. 10.000tik 50.000 biztanlera bitarteko udalen kasuan, 10 salaketa jaso dituzte urtero, batez beste. Batez besteko hori Lizarrako urteko 4 salaketen eta Burlatako urteko 21 salaketen artean dabil.

Inkestatutako udaletan, oro har, kexa bat aurkeztu da urtero, mila biztanleko. Iruñean salaketa bat aurkezteko aukera (1,4 milako) udalerrin bertan batean aurkezteko aukeraren hirukoitza (0,5 mila-

ko) eta udalerrin txiki batean aurkezteko aukera baino hamabost bider handiagoa da (0,1 milako).

Hala ere, zenbait udalek adierazi dutenez, hitzezko kexak jaso dituzte jatorri ezberdineko zaratei buruz (tabernak; txakurren zaunkak, gauez; txabiskeen zarata, udan; musika, festetan; etab.) eta, gutxiagotan, girotze ekipoek, elizako kanpainak eta abarrek sortutako zarata eta darderei buruz.

Zenbait udali salaketak Nafarroako Gobernua-ren Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren bitartez iristen zaizkie, Foruzaingoak egindako akten eta neurketen ondorioz.

AZKEN HIRU URTEOTAN AURKEZTUTAKO SALAKETA KOPURUA, HORIEK SORTU DITUZTEN JARDUERAK KONTUAN HARTUTA

SALAKETA KOPURUA	3.000 bizt. >	3.000tik 10.000ra	10.000tik 50.000ra	50.000 bizt. <	GUZTIRA
Bizilagunak (txabiskeak barne)	2	49	36	301	386
Tabernak		25	45	290	357
Beste jarduera sailkatu batzuk		19	28	211	256
Beste batzuk	3	15	10	30	58
Salaketen kopuru osoa	5	108	119	832	1.057

Salaketak horiek sortzen dituzten jarduera kontuan hartuta aztertzen direnean, zera ikusten da: hirutik bat tabernekin sortzen dute, beste bat bizilagunen zaratek eta azkenekoa beste jarduera sailkatu batzuek.

“Gelei”, “txabiskeei” edo erabilera pribatuko aisi-aldirako lokalei buruzko informazioa eskatu den arren, ezin izan dugu horiekin lotutako salaketa kopurua jakin, udalerrin gehienek bizilagunek sor-

tu dituzten zaraten multzo berean sartzen dituztelako.

Erabili dugun inkesta-galdetegiaren bidez, aurkeztutako mila salaketa baino gehiago horiek eragin dituzten lokalen kopurua zehaztu nahi genuen, salaketa gehienak errepikatuak direla eta lokal kopuru zehatz bati dagozkiola egiaztatzeko. Baina, galdera hori erantzun duten udalen kopuru eskasa dela-eta, ezin izan dugu hipotesi hori ez baieztatu ez gezurtatu.

Halaber, jarduera edo lokal berberen aurka behin eta berriro jarritako salaketei (egoerak luza-roan irauteagatik) buruzko informazioa izenak emanez jakinarazteko eskatu genuen. Milagroko, Zizur Nagusiko eta Noingo udalek baino ez digute eman jatorri berberetatik behin eta berriro jarritako salaketen berri.

- Milagrok enpresa bat aipatu du. Enpresa ingurumen baldintzak hobetzeko plan bat egiten ari da eta, aurreikusten denez, kutsadura akustikoa sartuko du, kontuan hartu behar diren ingurumen alderdien artean.

- Zizur Nagusiak salaketak behin eta berriro eragin dituzten bost kasu aipatu ditu: horietako bi bizilagunen zaratek sortu zituzten, beste bat haurtzaindegi batek eta azkeneko biak tabernek.

- Noainek bi tailerrek eta lantegi batek behin eta berriro sortutako salaketen eta elizako kanpaiak sortutako bi salaketen berri eman digu.

JARDUKETA, SALAKETEN AURREAN

Udalek salaketen aurrean praktikan izan duten jarduketaren prozedura arrunta jakiteko, horri buruzko informazioa (burututako jarduketan azken emaitzari buruzkoa, bereziki) eskatu genien.

JARDUKETA, JASOTAKO SALAKETEN AURREAN

Salaketen emaitzak zenbakitan	3.000 bizt. >	3.000tik 10.000ra	10.000tik 50.000ra	50.000 bizt. <	GUZTIRA
Ez da ikerketarik hasi			1		1
Salaketa artxibatu da, egiaztatu eta gero		11	2	573	586
Neurri zuzentzaileak hartzeko eskakizuna		19	46	104	168
Jarduera arautzeko ohartarazpena	1	26	10		37
Zehapen espediente bati hasiera eman zaio	1	47	61	155	264
Ez dago jasota	3	5			8
GUZTIRA	2	103	119	832	1.064

Salaketen emaitzak ehunekotan	3.000 bizt. >	3.000tik 10.000ra	10.000tik 50.000ra	50.000 bizt. <	GUZTIRA
Ez da ikerketarik hasi			% 1		% 0
Salaketa artxibatu da, egiaztatu eta gero		% 10	% 1	% 69	% 55
Neurri zuzentzaileak hartzeko eskakizuna		% 18	% 38	% 12	% 16
Jarduera arautzeko ohartarazpena	% 20	% 24	% 8		% 3
Zehapen espediente bati hasiera eman zaio	% 20	% 44	% 51	% 19	% 25
Ez dago jasota	% 60	% 5			% 1
GUZTIRA	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Iruñeko Udalaren kasuan, 832 salaketa aurkeztu ziren, eta harriztekoa da horien % 69 (573) artxibatu baizik ez zirela egin, egin beharreko egiaztapena egin eta gero.

Datu hori ez dator bat gainerako udalek izandako jokabidearekin; izan ere, jokabide hori % 10ek baino gutxiagok baizik ez zuten izan.

Lau salaketatik batean, hau da, % 25ean, zehapen espediente bati hasiera eman zitzaion; % 16an, neurri zuzentzaileak hartzeko eskakizuna

egin zen; eta, % 3an, jarduera arautzeko ohartarazpena egin zen.

Oro har, udalek adierazi dute ezarri behar duten prozeduraren urratsak ezagutzen dituztela. Baina horiek zorrotasun maila ezberdinez ezartzen dituzte, establezimenduen eta enpresen kasuan. Bizilagunek sortutako zaraten kasuan, adierazgarria da udal batek erantzun duena: "Bizilagunen arteko kasuetan, AUTOKONTROLA, nagusiki, eta egokitzapen neurriak, egoki denean, eskatzen dira".

Herri txikietan, udaltzainek eta, zenbaitetan, baita alkateek ere, eragozpenak sortu dituzten pertsonak zuzenean ohartarazi eta arazoa konpontzeko eskatzen diete maiz. Horren emaitzak, baieztatu dutenez, “onak izan ohi dira”

ZEHAPENAK

Horretaz gainera, eskatu genien azken hiru urteotan izapidetu dituzten zehapen espedienteen buruzko informazioa eta ezarritako zehapenak espresuki aipatzeko.

ZEHAPEN ESPEDIENTEEN EMAITZAK

Zehapen espedienteen emaitzak	3.000 bikt. >	3.000tik 10.000ra	10.000tik 50.000ra	50.000 bikt. <	GUZTIRA
Zehapenen bat jarri dutela esan duten udalen kopurua	2	4	2	1	9
Ezarritako zehapenak guztira	1	23	59	93	194
Zehapena eragin duten zehapen espedienteen %	% 100	% 49	% 97	% 60	% 67
Zehapena eragin duten salaketen %	% 20	% 21	% 50	% 11	% 17

9 udalek, hau da, inkestaturen % 23k baizik ez dute zaratagatiko zehapenen bat jarri, azken hiru urteotan.

Azken hiru urteotan, 194 zehapen ezarri dira guztira; hortaz, ondorioztatzen ahal dugu irekitako zehapen espedienteen % 67k zehapena eragiten dutela. Positiboa dirudien emaitza hori aldatu egiten da, aurkeztutako salaketen kopurua aintzat hartzen dugunean. Izan ere, horien % 17k baizik ez dituzte zehapenak eragin.

Jarduera edo lokal berberaren inguruan burututako prozeduren emaitzei buruzko informazioa eskatu genuen, baina Cintruenigoko Udalak baino ez du baieztatu jarduerak emaitza positiboak izan

dituztela, ezarritako diru zehapenak zirela-eta, ondoren egin ziren sonometriak baimendutako mailaren azpitik zeudelako (hori jarritako salaketen beherakadari esker egiaztatu daiteke).

BADAEZPADAKO NEURRIAK

Zaraten arloan, garrantzi berezia eman behar ko zaio zehapen espedienteen izapidetzen denean ezartzen diren badaezpadako neurriei edo aurreneurriei. Horregatik, informazioa eskatu genuen zehapen espediente bat izapidetzen denean hartzen diren aurreneurriak —egoera kaltegarriak irautea saihesteko— zehazteko erabiltzen diren irizpideei buruz.

ZEHAPEN ESPEDIENTEA IZAPIDETZEN DENEAN BURUTUTAKO BADAEZPADAKO JARDUKETAK

Badaezpadako jarduketak	3.000 bikt. >	3.000atik 10.000ra	10.000atik 50.000ra	50.000 bikt. <	GUZTIRA
Musika ekipoa zigilatzea		2			2
Musika ekipoa kentzea					
Mugatzaile-erregistratzaile bat jartzera behartzea		3	2	15	20
Jarduera aldi baterako etetea	2	3	1	Bai*	6
Lokala ixtea		2			2
Badaezpadako beste neurri batzuk		2			2
Aurreneurriak guztira		12	3	15	32
Hartutako aurreneurrien %		% 26	% 5	% 10	% 12

* Ez da kasu kopurua zehazten

Ikusten ahal dugunez, kasuen % 12an baizik ez zen aurreneurririk hartu. Hala ere, kontuan hartu behar dugu Iruñeko Udalak zera adierazten duela, baita hartutako badaezpadako neurriak zehaztasunez zenbatzen ez dituenean ere: "Musika ekipoak norberaren lizentzian ezarritako balioetara berehala mugatzeko eskatzen da.

Instalazioak berehala eteteko eskatzen da, konpontzen diren arte. Ingurumen Ingeniaritzak lokala ikuskatzen du, eskatutakoa betetzen den egiaztatzeko."

Lodosako Udalak idatziz jakinarazten du zaratak sortzen dituzten ekipoak gelditu beharra, neurri zuzentzaileak hartzen ez diren bitartean, eta, hala egiten ez bada, jarduera gauzez zein guztiz

eteteko badaezpadako neurria hartzen du. Zizur Nagusiak musika jartzea debekatzen du, halaber.

Milagroko Udalak diskoteka eta elikagai industria bana aldi baterako ixteko agindu zuen, eta aurreneurri hauek hartu zituen, besteak beste: jarduera gauzez etetea eta zenbait eragiketa etxebizitzetatik ahalik eta urrutien egitera behartzea.

ZEHAPENAREN OSTEKO KONTROLA

Arestian aipatu dugunez, garatzen den prebentzio ekintza bakarra alde aurretik neurri zuzentzaileak hartzera behartutako edo zehapena ezarri zaien establezimenduen osteko kontrolean oinarritzen da.

AZKEN HIRU URTEOTAN EGINDAKO IKUSKAPENAK, NEURRI ZUZENTZAILEAK EZARRI ETA GERO

	3.000 bizt. >	3.000tik 10.000ra	10.000tik 50.000ra	50.000 bizt. <	GUZTIRA
IKUSKAPEN KOPURUA					
Neurri zuzentzaileen osteko prebentzio kontrolak	0	24	96	1.777	1.897

Zenbait udalek jakinarazi dutenez, udaltzainek establezimendu horiek aldi behin zaindu dituzte, osteko hilabeteetan, gutxienez.

Iruñearen kasuan, "musika jartzeko debekua ekartzen duten zehapenak direnean, jarduera eguneroko zaintzen dute udaltzainek, oro har. Udaltzainek lokalera egiten dituzten bisitak jaso eta debekua betetzen duen egiaztatzen dute. Berdin jokatzeko da, ordu mugaketaren kasuan"

ARAZO ESPEZIFIKOAK.

Udalei eskatu genien, alde batetik, haien udalerrietan kexak maiztasunez sortzen dituen arazo espezifikorik edo zarata, botilo, txabiske eta abar ugari eremurik, autobus geltokirik, zabor bilketarik eta abar dagoen jakinarazteko, eta, beste alde batetik, hala izatekotan, arazo horiek konpontzeko aurreikusitako jardueren berri emateko.

Zera aipatu digute gai horren inguruan:

- Iruña: "Ez dago mota horretako kexak maiztasunez sortzen dituen eremurik. Bizkortasun edo arrakasta handiagoz edo txikiagoz konpondu ditugun egoerak bizi izan ditugu, baina ez da hiru urtez arazo berbera sortu duen eremurik antzeman.

Txabiskeei dagokienez, duela zenbait urte, Rinaldi kaleari eta, duela gutxiago, Ega ibaiaren kaleari buruzko kexak egon dira. Autobus geltokiei

dagokienez, duela urte batzuk Bigarren zabalguneari buruzko kexa bat aurkeztu zen. Duela gutxi, Nafarroako Gorteak kaleko kasua gertatu da. Botiloari dagokionez, duela zenbait urte, baita ere, Ooko Andre Maria plazari buruzko zenbait kexa aurkeztu ziren.

- Zizur Nagusia: "Bizilagunen zaratak. Gazteak elkartzeko etxabeei eta, neurri txikiagoan, kalegarbigailuari, zamalanei eta establezimenduetako pertsianei buruzko arazoak sortzen ari dira"

- Bera: "Jaso diren kexa nagusiak bideak garbitzeko makinei buruzkoak izan dira. Arazoa konpontzeko, makinak erabiltzeko ordutegia aldatu da. Kexa horien artean, hauek ere aipatu behar ditugu: elkarte gastronomiko batek eta zenbait tabernak sortzen duten zarata, batez ere udan, ate-leihoak irekita dituztelako."

- Cascante: "Jaietan eta jaien aurreko egunean, "txabiskeen" arazoa. Ez da ezohiko jarduerarik aurreikusitakoa."

- Cintruenigo: "Botiloia eta etxabeak edo "txabiskeak". Kontrol poliziala aurreikusitakoa da."

- Lodosa: "Oporraldietan, motozikletak eta ziklomotorrak gauzez ibiltzea. Udaltzainei eta foruzainei jakinarazi zaie."

- Mendigorria: "Azken hamar urteotan zarategitako eragozpenei buruzko bi kasu arduratu dira.

Horiek ondoz ondoko keak eta salaketak eragin dituzte. Eragozpenak egon arren, ez da salaketarik jarri udalean, ez dira kasuez arduratu (adierazitako biez izan ezik) eta ez da inolako jarduketarik aurreikusi behin-behineko arazoak konpontzeko”

- Zenbait udalek mota horretako arazorik ez dagoela edo, gutxienez, garrantzi berezirik gabeko arazoak direla adierazi dute espresuki. Hauek dira udal horiek: Burlata, Cabanillas, Caparroso, Zizur Zendea, Cortes, Egues, Larraun, Irunberri, Mendabia, Milagro, Miranda-Arga eta Viana.

- Inkestatutako gainerako udalerriek ez diote galdera horri erantzun.

KONTROL BIDEEN HORNIKETA

Galdetegian, kontrol bideei buruzko galdera bat ageri zen, halaber. Zehazki, hauxe galdetu genien: haien ustez jarduera gogaikarrien ikuskapen, zainketa eta kontrol jarduerak behar bezala egiteko beharrezko giza bitartekoak eta bitarteko materialak zituzten.

KONTROL EGOKIA EGITEKO BEHAR BESTE BIDE IZAN DUZUE?

Behar beste kontrol bide	3.000 bizt. >	3.000tik 10.000ra	10.000tik 50.000ra	50.000 bizt. <	GUZTIRA
Bai	% 15	% 16	% 40		% 21
Ez	% 77	% 37	% 40		% 50
Ez du erantzun	% 8	% 47	% 20		% 29
GUZTIRA	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Udalen % 21ek baizik ez zuten baiezko erantzunik eman.

Hauek dira baiezko erantzuna eman zuten zortzi udalak: Iruña, Lizarra, Zizur Nagusia, Antsoain, Cintruenigo, Viana, Milagro eta Etxarri-Aranatz.

Udalen % 50ek behar beste biderik ez dutela diote. Oso esanguratsua da portzentaje hori % 40koa izatea tamaina ertaineko udalerrien kasuan.

- Iruñeko Udalak zera adierazi du: “Azken urtean, zerbitzuan pertsona bat gehiago aritu da; hortaz, helburuak betetzeko behar beste giza bitarteko dagoela uste da, eta datorren urtean ekipu berriak erosteko aurrekontua eginen da.”

- Barañainek eta Zizur Nagusiak aipatu dute arlo horretan aplika daitekeen legeria konplexua dela eta langile trebatuak behar direla. Hortaz, oso interesgarria iruditu zaie Nafarroako Gobernuaren Segurtasun Eskolaren prestakuntza eskaintza, nahiz eta neurketa tresnen erabilera ezagutzera mugatu eta plaza kopurua mugatua den, halaber.

- Cabanillasko Udalak adierazi du orain arte Namainsa enpresa publikoaz baliatzen zela, baina, hemendik aitzina, haren jarduketa ezberdengatik kobratuko duela jakinarazi berri duela (orain arte dohainik egiten zituen txostenak).

- Milagroko Udalak zera adierazi du: “Segurtasun kidegoen (Guardia Zibila eta Foruzaingoa) elkarlana eta udalaren beraren baliabideak nahikoak izan dira, gaur egun arte”

HOBEKUNTZA ALORRAK ETA PLANAK.

Ez dago kutsadura akustikoari buruzko helburu zehatzak biltzen dituen hobekuntza planik duen udalik. Hala ere, Iruñeko Udalak zeharkako aipamen bat egin du haren hobekuntza alor nagusia “egungo planarekin jarraitzea” litzatekeela esatean.

Galdera horri erantzun dieten udalen arabera, gomendagarria litzateke hobekuntza alor hauetan esku hartzea:

- Bera: Foruzaingoaren laguntza maizago edukitzea eta iraunkorragoa izatea.

- Cabanillas: tabernek edo txakurren zaunkek sortzen dituzten zaratak kontrolatzea.

- Cascante: kontrolerako prestatutako giza baliabideak eta baliabide teknikoak edukitzea.

- Lodosa: ziklomotorren trafikoa eta gazte taldeak kaleetan pilotatzea kontrolatzea, oporraldietan.

- Mendabia: ibilgailuek sortzen dituzten zaratak kontrolatzea.

- Mendigorria: zaratak sortzen dituztenak kontzientziaraztea eragozpenak saihesteko neurriak berehala hartzeari buruz. Aisiarako lokal guztiei dagozkien jarduera sailkatuko eta irekitzeko lizentziak eskatzea.

- Milagro: zaratak erregistratzeko sistemak estandarizatzea. “Indarrean den araudiari jarraikiz,

taberna bereziek soinu emisioaren mugatzaile-erregistratzaile bat izan behar dute. Baina ez da jaso hardware eta software egokiak eduki behar direla, erregistratzailean bildutako datuak biltzeko.

Merkatuan marka eta modelo ezberdinak daukenez, zailagoa da Administrazioarentzat datuak kontrolatu eta biltzea eta, hortaz, egin daitezkeen arau-hausteak kontrolatzea”

- Zizur Nagusia. Kanpoko zaratak: ibilgailu astunen trafikoa, obrak, zabor bilketak, zamalanak. Barruko zaratak: etxeokak (oihuak, musika,

telebista, altzariak mugitzea, txakurrak, etab.). Jendea elkartzeko etxabeak eta lokal publikoak kontrolatzea.

EGUNGO ARAUDIARI BURUZKO BALORAZIOA

Udalen % 39k uste dute kutsadura akustikoari buruzko araudi orokorra egokia eta nahikoa dela, toki entitateen esku-hartze eraginkorra errazteko gai horren inguruan. Udalen % 21 ez daude ados baieztapen horrekin eta gainerako % 39k ez dute erantzun.

EGUNGO ARAUDIAREN EGOKITASUNARI BURUZKO IRITZIA

Egungo araudia egokia eta nahikoa da?	3.000 bizt. >	3.000tik 10.000ra	10.000tik 50.000ra	50.000 bizt. <	GUZTIRA
Bai	% 54	% 32	% 40		% 39
Ez	% 23	% 21	% 20		% 21
Ez du erantzun	% 23	% 47	% 40		% 39
GUZTIRA	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

Gai horren inguruan adierazpen hauek egin dituzte:

- Iruña: “Zaratari buruzko Legearen garapeneren eta zaratari buruzko udal ordenantzaren azken zirriborroaren irakurketaren zain gaude”

- Zizur Nagusia: “Araudi erregulatzailea eta zehatzailea anitza eta iluna da. Indarrean den araudian, tratamendu ezberdinak daude jarduera sailkatuentzat eta kaltegabeentzat. Ez da kontuan hartzen edo gutxietsi egiten da 4/2005 Foru Legearen arabera jarduera sailkatuekin eta JEZ ordaintzen duten edo lokal erregistratua duten jarduera kaltegabeekin zerikusirik ez duen kaltea (32/90 Foru Dekretuko aipamenak desagertzen dira eta lege hori garatzeko arauak falta dira).

Sailkatuta ez dauden edo argi eta garbi bazter uzten diren beste kalte edo afekzioei dagokienez (behin-behineko edo aldi baterako jarduerak, aireko edo lehorreko ibilgailuen trafikoa, obrak, etxeok zaratak, etab.), 135/89 Foru Dekretua aplikatzea

aztertzen ari dira, baina zenbait zalantza eta zailtasun juridiko dituzte”

- Mendigorria. “Foru araudia foru dekretu batean jasotzen da. Hala ere, komenigarria edo beharrezkoa litzateke foru lege bidez ezarritako araubide bat edukitzea, Konstituzioak ezartzen baitu administrazio arau-hauste eta zehapenak legez arautu behar direla. Dena dela, Toki araubidearen oinarriari buruzko Legearen azken aldaketak oztopo hori gainditu duela dirudi”

- Barañain: aisialdirako lokal pribatuak arautzen dituen udal ordenantza bat egin behar dela adierazi du.

- Milagro: datuen bilketa eraginkorra errazteko, emisioak jasotzeko sistemak arautu eta estandarizatu behar direla aipatu du, berriro ere.

- Zenbait udalen arabera, araudia egokia eta nahikoa da. Arazoa, ordea, hura toki entitate txikietan aplikatzeko zailtasuna da.

NAFARROAKO GOBERNUAREN ESKU-HARTZEA, ZARATEN ARLOAN

Kutsadura akustikoaren prebentzioan eta kontrolean eskumena duten Nafarroako Gobernuko departamentuek garatzen duten jarduera ezagutzeko asmoz, horri buruzko informazioa eskatu genien 2006ko martxoan.

Beste alde batetik, Foruzaingoaren eta Ingurumen Departamentuaren arduradunekin elkarrizketatu ginen, arazoari buruzko informazio kualitatiboa jaso eta hobekuntza arloak antzemateko.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE KONTSEILARITZA. FORUZAINGOA

2006ko martxoan, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari informazio hau eskatu genion:

- Aurkeztutako salaketak, zein lokal motaren aurka eta zein udalerritan aurkeztu ziren espresuki adieraziz.

- Foruzaingoak egindako ikuskapenen edo kontrol jardueren zerrenda.

- Salaketen eta irekitako zehapen espedienteen emaitzak, emandako ebazpenak eta ezarritako zehapenak, hala behar izan zenean.

- Horiek izapidetzen ziren bitartean hartutako behin-behineko neurriak eta horiek ezartzeko edo ez ezartzeko irizpideak.

- Zein kasutan erabili den ordu murrizketa ezartzeko aukera. Ordu murrizketa 201/2002 Foru Dekretuaren 7. artikuluan jasotzen da.

Halaber, kutsadura akustikoa sortzen duten jardueren inguruan Foruzaingoak izan duen jarduketa zehaztasun handiagoz ezagutzeko, 2005eko abenduan, Foruzaingoaren Joko eta Ikuskizunen Dibisioaren arduradunarekin elkarrizketatu ginen. Dibisio horrek kutsadura akustikoa kontrolatzen du.

Jarraian biltzen den informazio kuantitatibo eta kualitatiboa bi iturri horietatik lortu dugu.

ZARATENGATIK AURKEZTUTAKO SALAKETAK, 2003tik 2005era

Aurkeztutako salaketak	2003-2005 urteak
Espediente bukatuak	398
Espediente irekiak	54
Salaketak guztira	452

* Salaketak udaltzainen, guardia zibilaren eta foruzainen kidegoen aurrean aurkeztu ziren.

Esku-hartzeen % 90 herritarren zuzeneko salaketen ondorio dira. Gainerako % 10 bitarteko teknikorik ez duten udalek eskatuta egin ziren. Salatzailea soinu neurketak egiteko bitarteko teknikoak dituen udalen bateko herritarra bada, dagokion udalari sonometria egiteko eskatzen ahal diola jakinarazten zaio. Edonola ere, Foruzaingoa herritarren eskakizun guztiez arduratzen da beti eta, logikoa denez, gutxiago izaten dira udal handietan.

- Salaketa gehienak aisialdirako lokalei buruzkoak dira (tabernak eta taberna bereziak). Arazoak lokalen intsonorizazio eskasaren eta zarata gehiegi ateratzen duten musika tresnen ondorio dira.

Zenbaitetan, jarduera irekitzeko lizentzia lortzeko aurkezten diren intsonorizazio egiaztagiriak eztabaidagarriak dira.

- Herriko jaiei buruzko kexak ez dira oso ohikoak. Hala ere, egiaztatzen da haien hasierako kokalekuan kexarik eragin ez zuten jarduera gogaikarriak lekuz aldatzeko arazoak daudela.

- Festa aretoei buruzko salaketak eskasak dira, baita ere. Izan ere, hiriguneetatik kanpo egon ohi dira.

- Txabiskeei, bizilagunen arteko molestiei eta txakurrak gordetzen dituzten lokalei (ehiztariak) buruzko salaketak areagotu dira. Horiek, neurri batean, bizikidetzara arazoek sortzen dituzte edo larriagoak dira horien ondorioz.

- Industri establezimenduetatik gertu dauden familiabakarreko etxebizitzek salaketak jartzen dituzte (herritarrek egoitzaren bortxaezintasunera-ko eskubidea eskatzen dute, baita etxebizitzaren kanpoko aldean dagoen berdegunean ere).

- Jendea lokaletatik kanpo pilotzeak ere kexak eragiten ditu (ez dira asko, baina oso konplexuak dira, ezin baitzaio tabernari zarataren errua leporatu atea itxita badago).

Hau da jarduketa prozedura arrunta, salaketa dagoenean:

- Herritarrari deitzea, neurketa egiteko hitzordua jartzeko. Sonometria 22.00etatik aitzina egin ohi da, ukitutako etxebizitzako logelan.

Kalez jantzita azaltzen dira eta ez dute eragozpenak sortzen dituen establezimenduaren titularra aldeztu aurretik ohartarazten, hark ez jakiteko eta bizilagunek ohikotasunez jasaten duten benetako soinu inmisioa jaso ahal izateko.

- Soinu maila legez onartutako maila baino handiagoa bada, akta egiten da eta zarata nondik datorren zehazten da, osteko neurriak hartzeko

aukera errazteko: soinua mugatzea, musika ekipoa zigilatzea... Salatzaileari aktaren kopia bat ematen zaio. Foruzaingoak beste ale bat gordetzen du beretzat.

- Sonometroak jaso dituen datuak ordenagailura pasatzen dira eta txosten tekniko bat egiten da. Horri akta eta txosten argigarri bat gehitzen zaizkio. Eta hori guztia dagokion udalari aurkeztu eta dagozkion hitzezko azalpenak egiten zaizkio.

- Foruzaingoak txostenen erregistro sistema informatizatua du. Horren bidez, salaketei erantzuteko igaro den denbora eta horien azken emaitzak ezagut daitezke.

FORUZAINGOAK EGIN DITUEN NEURKETAK, 2003tik 2005era

Egindako neurketak	2003-2005 urteak
Tabernak	131
Beste jarduera sailkatu batzuk	66
Bizilagunak, txabiskeak, elkarte gastronomikoak, etab.	308
Neurketak guztira	505

Foruzaingoak ez du aldizkako ikuskapen edo kontrol prebentiboko jarduerarik egiten. Hala ere, arduradunek uste dute taberna berezien soinu mailen aldizkako kontrola egin litekeela, taberna horiek legez eduki behar dituzten barne sonografoak egiaztatuz eta barruko soinuaren mailak 90 dezibelioak gainditzen ez dituela bermatuz.

Foruzaingoaren arduradunen esanetan, egungo eskaerari erantzuteko behar adina bitarteko dute.

Ikuskapenak Joko eta Ikuskizunen Dibisioko hamahiru foruzain espezializatuk egiten dituzte.

Guztiek dute prestakuntza espezializatua (NUPeko prestakuntza ikastaroak eta eskola praktikoa). Unitateak bi sonometro ditu.

Foruzaingoak aholkua ematen die hala eskaetzen duten udaletako udaltzainei: sonometroak erabiltzen eta jarraitu behar dituzten neurketa urratsak irakasten dizkiete. Foruzaingoak informazio hau du, bitarteko teknikoak dituzten udalei buruz:

SONOMETROAK DITUZTEN UDALEN ZERRENDA

Altsasu	Noain
Antsoain	Iruña
Barañain	Azkoien
Berriozar	San Adrian
Burlata	Zangoza
Cintruenigo	Tafalla
Corella	Tutera
Egues	Atarrabia
Lizarra	Zizur Nagusia

* Ez dakigu tresna horiek homologatuta dauden eta dagozkien urteko ikuskapenak egin zaizkien

Foruzaingoak 2003., 2004. eta 2005. urteetan jasotako salaketei eta egin zituzten neurketei buruzko informazio zehatza igorri zigun (lokal motak eta udalerrak kontuan hartuta).

FORUZAINGOAK AZKEN HIRU URTEOTAN EGIN DITUEN NEURKETAK, UDALERRIKA

EGINDAKO NEURKETAK	Tabernak	Beste jarduera sailkatu batzuk	Bizilagunak, txabiskeak, eta abar	GUZTIRA
Orikain			26	26
Berriozar	10	2	9	21
Uharte	1	2	17	20
Antsoain		5	14	19
Azagra	9	2	8	19
Azkoien	8		10	18
Mendabia	2		13	15
Faltzes		2	12	14
Orkoién	1		13	14
San Adrián	9		5	14
Beriain		13	13	
Ablitas		1	11	12
Aranguren (Mutiloabeiti)		8	4	12
Lodosa	6		6	12
Milagro	2	3	7	12
Arre		2	8	10
Tutera	6		4	10
Agoitz	9			9
Bera	2		7	9
Cascante	5		3	8
Gares	3	2	3	8
Tafalla	8			8
Tiebas			8	8
Valtierra		1	7	8
Villafranca	8			8
Añezkar		7		7
Lerin	7			7
Murchante		1	6	7
Iruña		2	5	7
Berriobeiti		1	5	6
Corella	2	1	3	6
Narbarte			6	
Caparroso		1	4	5
Mendigorría			5	5
Zangoza	2	1	2	5
Doneztebe	5			5
Viana	2	1	2	5
Belaskoain			4	4
Castejon	1		3	4
Domeñu		1	3	4
Fontellas	1	1	2	4
Funes	1	1	2	4
Goizueta	4			4
Erriberri		1	3	4
4 ikuskapen baino gutxiagoko beste udalerrri batzuk	17	17	45	79
GUZTIRA	131	66	308	505

Gehitutako laburpenean ikusten dugunez, Foruzaingoaren kontrol jarduera berezko baliabiderik ez duten tamaina ertaineko eta txikiko udalerritan egiten da, nagusiki.

FORUZAINGOAK AZKEN HIRU URTEOTAN EGIN DITUEN NEURKETAK, UDALERRIEN TAMAINA KONTUAN HARTUTA

EGINDAKO NEURKETAK	3.000 bizt. >	3.000tik 10.000ra	10.000tik 50.000ra	50.000 bizt. <	GUZTIRA
Neurketak guztira	184	288	26	7	505

Hau da Foruzaingoaren Joko eta Ikuskizunen Dibisioaren arduradunen iritzia, indarrean den araudiari eta haren egungo aplikazio mailari dagokienez:

- Udal gehienek uste dute, zaratei, orduei eta abarri buruzko ordenantza espezifikorik ez izan arren, araudi orokorra prozesuan eraginkortasunez esku-hartzeko nahikoa eta egokia dela, betiere hura aplikatzeko asmorik bada.

- Bakarrik diru zehapena ezartzea ez omen da nahikoa arazoa konpontzeko. Eraginkorragoa litzateke araudian ezarritako neurri hauek hartzea: soinua mugatzeko neurriak, musika aparatuak zigilatzeta eta lokala ixtea.

- Egiaztatu da “kasu historikoak” daudela, zeinetan udalen esku-hartzea eraginkortasunik ez duen. Herritarrak ez daude pozik zenbait udalen esku-hartzea ez delako eraginkorra izan, kasu zehatzetan.

- Ulergaitza da, sonometria batean legez onartutako soinu maila gainditzen dela egiaztatzean eta Foruzaingoak egoera horren berri dagokion udalari jakinaraztean, herritarrek auzibidera edo arartekoarengana jo behar izatea, udalari eskatzeko jarduera gogaikarriei dagokienez dituen legezko ikuskapen, kontrol eta zehapen funtzio eta betebeharrak bete ditzan.

Lehendakaritza kontseilariak informazio hau eman digu, ezarritako zehapenei buruz.

BARNE ZUZENDARITZA NAGUSIAK IZAPIDETUTAKO ZEHAPENAK, IXTEKO ORDUTEGIA EZ BETETZEAGATIK

	2003. urtea	2004. urtea	2005. urtea	GUZTIRA
Ixteko ordutegia ez betetzeagatik ezarritako zehapenak	67	70	62	199

Zehapena jaso duten lokalak tabernak, taberna bereziak eta diskotekak dira, nagusiki, nahiz eta jatetxeren bat ere aurkitzen dugun horien artean.

Legez ezarritako ordutegia ez betetzeagatik ezarritako zehapenak 602 euroko isuna ordaintzean oinarritu ohi dira. Edukiera gainditzeagatik ezarritako zehapenengatik, ordea, baldin eta segurtasunari eragiten badio, 6.010 euroko isuna ordaindu behar da.

Salatutako lokalak udalerrri hauen barruan daude: Ablitas, Aitzoain, Antsoain, Agoitz, Azagra, Barañain, Bera, Burlata, Caparroso, Zarrakaztelu, Castejon, Cintruenigo, Doneztebe, Lizarra, Etxalar, Funes, Izaba, Leitza, Martzilla, Mendabia, Erriberri, Ororbia, Iruña, Azkoien, San Adrian, Santakara, Zangoza, Tafalla, Tuter, Untzue, Viana eta Villafraña.

Aipatu behar dugu, kontseilariaren idazkian, ixteko ordutegien ez-betetzeak baizik ez direla jasotzen eta ez direla maila akustikoak gainditzeagatik ezarritako zehapenak zehazki jorratzen, nahiz eta, logikoa denez, lokalaren ordutegia behar baino gehiago luzatzeak sortutako egoera gogaikarria larriagotzen duen.

Horretaz gainera, Lehendakaritza kontseilariaren idazkian, ez dira aipatzen, eskatu zen bezala, zehapen prozedura bat izapidetzen den bitartean ezarritako badaezpadako neurriak, ez eta beste zenbait kasu, zeinetan 201/2002 Foru Dekretuaren

7. artikuluan ezarritako ordutegia murrizteko aukera erabili baitzen.

Azkenik, ezin izan dugu lortu, ezta ere, Nafarroako aisialdirako lokal ugari biltzen dituzten “puntu beltzei” buruz eskatutako informazioa.

Joko eta Ikuskizunen Dibisioaren arduradunei egindako elkarrizketan, beste hobekuntza alor hauek antzeman ditugu:

- Establezimenduei aldi behingo zuzenketak eskatzeko aukera, lizentzia eman zitzaizenean eskatu zitzaizkien intsonorizazio baldintza egokiak mantentzen dituztela egiaztatzeke, eta sortu diren aldaketekin bat etortzen diren neurri berriak hartzea, inmisio mailak legez ezarritako mailen azpitik mantentzeko.

- Taberna arruntetan (ez berezietan bakarrik) barne sonografoak jarri beharra ezartzeko aukera aztertzea, establezimenduen barruko soinu maila aldi behin kontrolatu eta egiaztatzeke.

- Udalerrri txikiei ematen zaien laguntza indartzea.

- Neurtzeko zenbait teknika hobetzea. Ozenak ez diren soinu iraunkor edo etengabeak ez dira sonometrietan jasotzen (batzuetan, neurketa minutu bat gutxi da). Zenbait kasutan, neurketa maiztasun zehatzak ezarri beharko liriateke, egoera gogaikarri batzuen norainokoa behar bezala baloratzeko.

IGURUMEN, LURRALDEAREN ANTOLAMENDU ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA

ZARATA MAPAK

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariari eskatu genion zarata mapen diseinuaren eta ekintza planen idazketaren aurreikuspenei buruzko informazioa, 37/2003 Legean ezarritakoari jarraikiz. Izan ere, 2007ko ekainaren 30a baino lehen onetsi beharko dituzte urtero sei milioi ibilgailu baino gehiagoko trafikoa duten bide ardatz handiei eta 250.000 biztanle baino gehiagoko aglomerazioei buruzko zarata mapak.

Aipatu dugun 37/2003 Legeak (abendua 16ko 1513/2005 Foru Dekretuak zati batean garrantzen duena) kalitate akustikoari buruzko ezarpenak ditu. Kalitate akustiko gisa zera ulertzen da: eremu bateko kalitate akustikoak esparru horretan egiten diren jardueretara moldatzea. Gobernu zentralari dagokio alor akustiko bakoitzari ezartzen ahal zaizkion kalitate helburuak zehaztea. Alor akustikoak kalitate akustikoko helburu berberak dituzten eremuak dira.

Autonomia erkidegoek alor akustiko motak ezartzeko eskumenak dituzte. Alor akustikoak lurzorua erabileraren nagusiaren arabera sailkatzen dira, Legeak ezartzen duen gutxienezko tipologiari jarraikiz.

Arau horren arabera, lurraldearen plangintza oinarritzeko tresna bat da, zarata murrizteko eta arazo berriak sortzea saihesteko. Horretarako, hirigintza plangintzak lurzoru mota bakoitzari esleitzen dizkion erabilerak erabakigarriak izanen dira, lurraldearen sailkapen bat egin ahal izateko, 7. artikuluan jasotako alor akustikoren batean, eta lurralde eta hirigintza plangintzak kontuan hartu beharko ditu lege horretan, horren garapenean emandako arauetan eta horiek gauzatzeko egindako administrazio jarduketetan ezarritako aurreikuspenak.

Plangintza eta lizentziak hirigintzako zuzenbidearen bi helburu dira. Helburu horien bidez, erabakitasunez lagun daiteke zaratagatiko kutsadura murrizten. Lehenengoarekin hiria diseinatu eta hazkunde modua eta kontserbazioa aztertzen dira; bigarrenekin, jarduerak kontrolatzen dira. Tresna horiei zarata mapak gehitu behar zaizkie. Zarata mapek benetako egoera akustikoa adierazten dute, eta kalitate akustikoaren kartografiak lurraldearen alor bakoitzeko kalitate helburuak islatzen ditu; hortaz, bien arteko konbinaketaren bidez, hartu beharko diren prebentzio eta zuzenketa akustikoko neurriak zehazten ahalko dira.

Aurreikusteko modukoa da, Legeak egiten duen Estatuko, erkidegoetako eta herrietako erregelamenduaren garapenean aipatze etengabeagatik garatu behar diren alderdien kopurua dela eta, epe zehatza igarotzea Legea bere osotasunean aplikatu eta herritarrek haren ondorioak haien ongizate pertsonalean eta bizi kalitate hobean antzeman ahal izan arte; izan ere, gogo handia dute eragiten dieten baldintza akustikoak hobetuko dituen prozesu global bati ekiteko.

2006ko urrian Leonen egin ziren Erkidegoetako eta Espainiako arartekoen arteko XXI. koordinazio jardunaldietan, gai hauei buruz hitz egin zen, besteak beste: lurralde eremu zehatz batean zerbait jarduera egoteak sortzen duen arazoa eta lurzorua erabileren bateragarritasuna. Jardunaldi horietan adierazi zen Zaratari buruzko Legearen garapenak Legean ezarritako tresnak —zarata mapak eta ekintza planak, bereziki— egitearen bidez sustatu beharra dagoela, arazo hori pairatzen duten herritarrek horren onespenean ondorioak lehenbailehen antzemateko.

Horri dagokionez, Ingurumen Departamentuak jakinarazi digu Nafarroan hasi direla Iruñerriko hiri aglomerazioari buruzko zarata mapa eta Iruñerriko ingurabideen mapa estrategikoak egiteko lanak. Iruñerrian, 250.000 biztanle baino gehiago daude eta, Iruñerriko ingurabideetan, sei milioi ibilgailu baino gehiago ibiltzen dira, urtero.

“Eskatutako lana bideratzen duen printzipioa hau da: Iruñerriko zarata mapak (hiri aglomerazioari buruzkoak eta ingurabideei buruzko mapa estrategikoak barne) erabili ahal izatea etorkizuneko ekintza planak, hau da, ingurumen zaratari eta horren ondorioei (baita zarata murrizketa ere, hala behar izanez gero) buruzko auziei aurre egiteko planak ezartzeko oinarri gisa”.

Lan horri dagokionez, Lehendakaritza kontseilariak erabili beharreko metodologia eta abar zehazten dituen txosten tekniko oso bat igorri zigen. Txostena atal hauez osatzen da:

1. Ikerketa alorra.
2. Informazio kartografikoaren bateragarritasun ikerketa.
3. Trafikoari eta zarata sortzen duten jardueri buruzko oinarritzko datuak.
4. Biztanleei eta lurzorua erabilerari buruzko datuak.
5. Soinu mailak ebaluatze metodologia.
6. Mapa estrategikoak.
7. Kalkulu ereduaren egiaztapena.

8. Aglomerazioaren mapa akustikoa.
9. Formatu ikustaileak diseinatu eta sortzea.
10. Aurrekontua.
11. Kronograma.
12. Ordainketak.

Ikerketa alorrak barnean hartuko du Iruñeko ingurubideek osatzen dituzten bideen barne eremua. Zehazki, bide hauen barne eremua:

- PA15: Noainen AP15arekin eta PA30arekin elkartzen den puntutik, Berriozarren AP15arekin eta PA34arekin elkartzen den punturaino.

- PA34: PA30arekin elkartzen den puntutik, Berriozarren PA30arekin elkartzen den punturaino.

- PA30: Berriozarren PA34arekin elkartzen den puntutik, Ollokin NA32arekin elkartzen den punturaino.

- NA32: Ollokin PA34arekin elkartzen den puntutik, Uhartan PA30arekin elkartzen den punturaino.

- PA30: Uhartan NA32arekin elkartzen den puntutik, Noainen AP15arekin eta PA15arekin elkartzen den punturaino.

- Eragin akustiko handiko hiri aglomerazio handiak daude zonakatze itxi horretatik kanpo. Hauek, zehazki: Zizur Nagusia, Berriozar (zati bat), Gorraitz, Sarriguren eta Noain. Eremu horiek ikerketa alorrean sartuko dira.

- Halaber, ikerketa alorrak aipatutako bideen kanpoko eremua barnean hartuko du, soinu bereko Lden (50dB) distantziaraino.

Hori egiteko kalkulatu den aurrekontua 290.000 eurokoa da (BEZ barne), eta ikerketa 2006ko amaierarako edo 2007ko hasierarako amaitzea aurreikusten da.

LAGUNTZA ETA KONTROL JARDUERAK

Halaber, Ingurumen Departamentua kutsadura akustikoa sortzen duten jarduerari dagokienez garatzen ari den kontrol jarduera ezagutzeko, 2006ko otsailean Ingurumen Integrazioako Zerbitzuko zuzendariarekin elkarriketatuta ginen.

Salaketak egon direnean, Departamentuak izan duen esku-hartzeari buruz, informazio hau eman zigun:

- Ingurumen Departamentuak 25 kexa inguru jaso ditu urtero, aisialdirako lokalei buruz. Kexen erdiak araudiaren berri, nora jo... jakin nahi zuten herritarrek aurkeztu dituzte. Beste erdiak, kasuan kasuko udalaren ekintzarik ezaren aurrean, Depar-

tamentuaren esku-hartzea eskatu duten herritarrenak izan dira. Ez dituzte kexak jaso.

- Ingurumen Departamentuaren txostena zenbait jarduera sailkatuen (tabernak eta kafetegiak, besteak beste) espedientetik kanpo uzten duen 1999ko Foru Legetik, Departamentuak ez ditu lokal horiek ikuskatu eta ez da legezkatze eskakizunik egin, jarduera sailkatuei buruzko 16/1989 Foru Legearen aginduak indarrean egon arren; agindu horiek Departamentuari jardura sailkatu guztien goi ikuskaritza esleitzen diote, bai eta esku-hartze subsidiarioa ere, udalaren ekintzarik eza dela-eta, neurri zuzentzaileak eskatzeari, jardueraren legezkatzeari edo zehapen ahalmenari dagokienez.

- Industri jarduerak sortutako zaratetan baizik ez dute esku hartu. Departamentuak jardura horien espedienteen gaineko txostenak egin eta neurri zuzentzaileak ezarri ditu. Iaz 3 zehapen espedienteri eman zitzaizkien hasiera.

Egiaztatu denez, kutsadura akustikoko arazoak daude, industri instalazioak etxebizitzetatik gertu daudelako.

Maiz, industri instalazioak lehenagotik zeuden, eta haien inguruan etxebizitzak eraiki dituzte geroago, batzuetan behar bezala antolatu ez duten hirigintza zabaltze baten ondorioz.

Araudiaren egokitasunari eta aplikazioari dagokienez, jarraian, Departamentuko arduradunek eman diguten informazioa eta haien iritzia jasotzen dira:

- Zarataren arazoa konplexua da, horri buruzko zenbait arau daudelako: zarata arautzen dutenak, eraikuntza arautzen dutenak (etxebizitzek behar bezalako isolamendua izatea...), ixteko orduetako buruzkoak, hirigintzakoak...

- Dagoen araudia nahikoa dirudi, zarataren arazoiari heltzeko, baldin eta udalek hura benetan aplikatu nahiko balute; baina onartzen dute udalerrri txikiak gertutasunak eta ohiko tratua hori oztopatzen dutela.

- Onartzen dute zailtasunak daudela indarrean den araudia ekoizpen prozesu konplexuetan edo garrantzitsuetan (langile kopuru zehatzeko industriak) aplikatzeko; izan ere, horietan neurri zuzentzaileak hartuko balituzte, ondorio latzak ekarriko lituzkete (jardura urtebetez ixtea, lurzorua isolatzeko lanak egiteko, makinaren ainguraketaren ondoriozko dardarak saihesteko, etab.).

- 4/2005 Foru Lege berria arauz garatzen ari da. Bertan, zenbait alderdi zehaztuko dira, hala nola nori dagokion zehapen prozedura bat hastea.

Zera aurreikusten da: 4 A, B eta C eranskinetako jardueretan, udalari edo Departamentuari egokitu-ko zaio prozedura hastea; eta 4 D eranskinetako jardueretan (jarduera sailkatuen lizentziak, Departamentuak alde aurretik txostena eman behar ez duenean: tabernak, elkarte gastronomikoak...), udalari baizik ez zaio egokituko prozedura hastea.

Departamentuaren arduradunekin egindako elkarriketan, beste hobekuntza neurri hauek ere antzeman ditugu:

- Diskotekak debekatzea egoitza eremuetan.

Jarduera sailkatuen arloan, Departamentuak laguntza ematen die eskatzen duten toki entitateei, NAMAINSA enpresaren bidez (Ingurumen Departamentuari atxikitako sozietate publikoa). Udalei ematen dien laguntza honetan oinarritzen da:

Aholkularitza teknikoa 80 bat udali:

- Jarduera sailkatuen lizentziaren izapidetzeari buruzko 500 kontsulta edo/eta txosten tekniko, urtero.

- Irekitzeko lizentzien izapidetzeari buruzko 150 kontsulta edo/eta txosten tekniko, urtero.

Kontrol jarduerak:

- 5 sonometria, batez beste, urtero.

Ez da ohikoa sonometria kontrola egitea, irekitzeko lizentzia eman aurretik, udalek ontzat ematen baitituzte, oro har, jarduera sailkatuaren sustatzaileek aurkezten dituzten soinu isolamenduko txostenak.

OSASUN DEPARTAMENTUA

Zaratak eta dardarak sortzen dituzten jarduerak bete behar dituzten baldintza teknikoak ezartzen dituen ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretuaren 3. artikulua zera ezartzen du: "Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuak aldi behin ezarriko du, foru agindu bidez, zarata eta dardarak epe labur eta ertainean kontrolatzeko jarduketara plan bat. Plan horretan, 10.000 biztanletik gorako udalerriek, bai eta zehazten diren beste batzuek ere, parte hartuko dute.

Planak bere helburuen justifikazioko memoria eduki beharko du eta prebentzio teknikak eta prozedurak erabiliko ditu, nagusiki."

Aurrekoarekin bat, 2006ko martxoan, Osasun kontseilariari eskatu genion departamentu horrek 1989. urtetik aitzina (foru dekretua urte horretan sartu zen indarrean) egindako jarduketa guztien berri emateko, aipatutako xedapena benetan bete-tze aldera.

Informazio eskaera horri erantzunez, Osasun kontseilariak zera jakinarazi digu:

- "Ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretuaren 3. artikulua zera ezartzen du: "Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuak aldi behin ezarriko du, foru agindu bidez, zarata eta dardarak epe labur eta ertainean kontrolatzeko jarduketara plan bat. Plan horretan, 10.000 biztanletik gorako udalerriek, bai eta zehazten diren beste batzuek ere, parte hartuko dute". Hala ere, oraindik ez dira plan horiek ezarri eta gauzatu, duela gutxi arte ez baitzegoen ingurumen zarata ebaluatu eta kudeatzeko erreferentzia gisa balio zezakeen Estatuko araudirik."

- "Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea ingurumen zaratari buruzko plangintza eta jarduketaren inguruko arau aitzindaria da, nahiz eta oso orokorra den eta haren erregelamendua-zen bidez (duela gutxi argitaratua) baizik ez den zehaztu. Erregelamendua abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretuak (abenduaren 17ko 301. zk. EAOn argitaratua) onetsi du eta zera ezartzen du: "Arau honen V. eranskinean ezarritako-arekin bat, ekintza plan bat egin behar da, 2008ko uztailaren 18a baino lehen, garraio azpiegitura handietatik gertu eta 250.000 biztanle baino gehiagoko aglomerazioetan"

- "Horregatik, Nafarroako Gobernuak, Inguru- men Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, ekintza planaren lehenengo fasea burutzea proposatzen du. Lehenengo fase hori Iruñerriko aglomerazioa- ren zarata maparen egitean oinarritzen da. Hori egite- ko, aipatutako erregelamenduan 8. eta 9. artiku- luetan ezarritako metodologia zehatza erabiliko da."

- "Zarata mapa horretatik lortutako informazio- an oinarrituta, gure komunitateko zarataren ekintza eta murrizketa plana egingen da. Hori planaren bigarren fasea izanen da eta arazoa konpontzen lagunduko du, ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dek- retuaren 3. artikuluan eskatutakoa betez"

135/1989 Foru Dekretuaren 3. artikuluan, otsai- laren 26ko 48/1987 Foru Dekretuaren edukia jaso- tzen da. 48/1987 Foru Dekretuak beren soinu eta dardaraketa mailagatik jendearentzat gogaikarri diren jarduerak bete beharreko baldintzak ezarri zituen. Dekretu horrek ezarri zuen, baita ere, Osa- sun Departamentuak (eta Gizarte Ongizatekoak) zarata eta dardarak epe labur eta ertainean kon- trolatzeko jarduketara plan bat egin behar zuela, aldi behin.

Ondorioz, Osasun eta Gizarte Ongizate Depar- tamentuaren 1987ko abuztuaren 20ko Foru Agin- dua onetsi zen. Foru Agindu horrek egoeraren

ezagutza hobetzeko beharrezko informazioa lortzera zuzendutako zenbait ekimen ezartzen zituen, plana egiteko alde aurreko betekizun gisa.

Hauxe dugu ekimen horietako bat: Osasun Publikoaren Institutuko Ingurumen Osasunaren Zerbitzuan erregistro bat sortzea, zarata eta dardara mailei buruzko salaketak eta gainerako intzidentziak kontrolatzeko. Udalek eta kontzejuek erregistro horretara bidali behar zituzten horiei buruzko salaketa eta intzidentzia guztiak.

Ingurumen Osasunaren Zerbitzuak jasotako informazioa aldi behin ebaluatu eta udalei eman behar zien ateratako ondorioen berri. Halaber, zerbitzu horrek udalei lagundu behar zien soinu mapak egiten, aurreneurriak eta neurri zuzentzaileak ezartzeko.

Foru agindu horretan jasotako jarduketan gauzatze mailari buruz, ez dugu inolako informaziorik jaso.

ONDORIOAK

KUTSADURA AKUSTIKOAREN GARRANTZIA

Gaur egun, zarata da biztanleen bizi kalitatea gehien murrizten duten elementu kutsagarrietako bat. Egiaztatu ahal izan dugunez, pertsonen osasun fisikoari eta mentalari eragiten die, eta ondorio eta asaldura psikologiko eta sozial larriak eragin ditzake. Horretaz gainera, bizilagunen arteko etengabeko istiluak sortu ohi ditu.

Auzitegiek ezarritako doktrinak aldaketa kualitatibo bat eragin du, ukitutako eskubidearen zehazteari eta kutsadura akustikotik eratorzen diren ondorio juridikoen garrantziari dagokienez.

Hori ezagutu behar dugu eta ezin dugu gutxietsi, soinu inmsio kaltegarriak, pertsonari (bere egoitzan) eragiten diotenean, haren intimitaterako eskubidearen benetako erasoak edo laido inkonstituzionalak baitira.

Intimitaterako eskubidea bakean gauzatzeko, bereziki, etxebizitzaren barruan, kanpoko eraso asaldatzaileen aurkako esparru seguru bat behar da. Eraso horien artean, gehiegizko edo/eta etengabeko zaratak daude, zalantzarik gabe, nahiz eta horiek, printzipioz, legezko jarduerak sortzen dituzten (legezko izateari uzten diete maila zehatzak gainditzen dituztenean).

UDALAREN ESKUMENAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Udalek funtsezko eginkizuna dute, herritarrak kutsadura akustikoaren aurka babesteari dagokionez.

Horretaz gainera, mota horretako eragozpenak sortzen ahal dituzten jarduera gehienek jarduera sailkatuei buruzko arauak bete behar dituzte.

Araudi hori benetan betetzeko, irekitzeko lizentzia emateaz gain, jardueraren garapena eragin-kortasunez gainbegiratu behar da, hasiera batean hartutako neurri zuzentzaileak mantentzen direla bermatuz eta horiek jarduerak izaten dituen aldatetara egokituz.

Halaber, legeari jarraikiz, udalek zuzendu behar dituzte haien udal esparruan garatutako jarduera sailkatuen funtzionamenduan antzemanda-ko hutsuneak. Horretaz gainera, legeak espezifikoki ezartzen du neurri zuzentzaileak nahitaez betearaziko direla, aurretiaz jakinarazita, enpresak edo lokalak ezarritako neurri zuzentzaileak hartze-ari uko egiten dioenean.

Jurisprudentiak toki administrazioari egozten dio kutsadura akustikoak sortzen duen kaltearen erantzukizuna, administrazio prozedura osatu duten datu faktikoen udalerraren babeska eskatzen dutenean, soinu inmsio kaltegarriak eteteko, eta udalak horiek saihesteko neurriak hartu ez dituztenean.

SALAKETAK.

Azken urteotan, gora egin du nabarmenki zarata sortzen duten jarduera gogaikarriei buruzko kexa kopuruak.

Kalkulatzen da kutsadura akustikoari buruzko 620 salaketa inguru aurkezten direla, urtero: 275 Iruñeko Udalean, 155 Foruzaingoan eta 160 gainerako herrietan.

Ingurumen Departamentuak, bere aldetik, 25 kexa inguru jasotzen ditu, urtero. 10.000tik 50.000 biztanlera bitarteko udaletan, 10 edo 12 salaketa jasotzen dituzte batez beste, urtero. Dena dela, horietako asko ez dira halakotzat jasotzen.

- Salaketa gehienak aisialdirako lokalei buruzkoak dira (tabernak eta taberna bereziak). Arazoak lokalen intsonorizazio eskasaren eta zarata gehiegi ateratzen duten musika aparatuen ondorio dira.

- Gora egin du "gelek", "txabiskeek" edo erabile- ra pribatuko aisialdirako lokalek sortutako zaratei buruzko salaketen kopuruak, baina ezin izan dugu horien kopurua zehaztu, udalerrri gehienek bizilagunek sortzen dituzten zaraten multzo berean sartzen dituztelako.

- Bizilagunen arteko barruko zaraten (oihuak, musika, telebista, altzariak mugitzea, txakurrak, etab.) ondoriozko eragozpenak areagotu dira.

Horiek, neurri batean, bizikidetzaz arazoak sortzen dituzte edo larriagoak dira horien ondorioz.

- Jendea lokaletatik kanpo pilotzeari buruzko kexak daude, halaber, eta, asko ez izan arren, kudeatzen oso zailak dira.

- Industri establezimenduetatik gertu dauden familiabakarreko etxebizitzek salaketak jartzen dituzte. Maiz, industri instalazioak lehenagotik zeuden, eta haien inguruan etxebizitzak eraiki dituzte geroago, batzuetan behar bezala antolatu ez duten hirigintza zabaltze baten ondorioz.

- Herriko jaiei, autobus geltokiei, zaborra biltzeko sistemei eta abarri buruzko kexak maiztasun gutxiagoz aurkezten dira, baina istilu asko sortzen dituzte, ohiko kokalekua aldatzen denean, bereziki.

- Zenbait udalerritan, kezka sortzen dute motorek eta ziklomotorek sortzen dituzten zaratek.

IKUSKAPENA ETA KONTROLA

Iruña kenduta, Nafarroako gainerako herrietan egiten diren ikuskapen jarduerak eskasak dira, argi eta garbi. Kalkulatzen da, Nafarroan, kutsadura akustikoarekin lotutako 1.600 kontrol inguru egiten direla, urtero: 1.200 Iruñeko Udalak egiten ditu, 170 Foruzaingoak eta 230 gainerako udalerrien artean. Inkestari erantzun dieten 5.000tik 10.000 biztanlera bitarteko udalek 16 kontrol egiten dituzte batez beste. 3.000tik 10.000 biztanlera bitarteko udalek, ordea, 3 ikuskapen egiten dituzte batez beste.

3.000 biztanle baino gutxiagoko udalek, oro har, ez dute kontrolik egiten, kontrolak Foruzaingoak eta NAMAINSAK (Ingurumen Departamentuari atxikitako sozietate publikoa) egiten baitituzte. Foruzaingoak 2,2 kontrol egiten ditu batez beste, udalerrri bakoitzean (80 udalerrri), urtero; NAMAINSAK oso kontrol gutxi egiten ditu, 5 baino ez urtero.

Inkestatutako udalerrien % 30 baino gutxiago dira azken hiru urteotan egin dituzten zaratei buruzko ikuskapen jarduerak zehaztu dituztenak.

Udal askotan, ez dute soinu mailen egiaztapena "in situ" egiten, jarduera abiarazteko baimena (irekitzeko lizentzia) eman baino lehen eta, oro har, baliozkotzat jotzen dituzte jarduera sailkatuen sustatzaileek aurkeztutako intsonorizazio egiaztagiria; zenbaitetan, egiaztagiri horiek zalantza-koak dira, Foruzaingoak salaketak jarri direnean egin dituzten ikuskapenen ondorioz agerian gelditu denez.

Oro har, ez Udaltzaingoak ez Foruzaingoak ez dituzte jardueren ikuskapenak edo kontrol prebentiboak aldian behin egiten, irekitzeko lizentzia eman zitzaizkion intsonorizazio baldintzak mantentzen diren egiaztatzeko. Kontrolak, egiten dituztenean, salaketen ondorioz edo, bestela, alde aurretik jarritako salaketa baten ondorioz egindako ikuskapenaren ostean ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen diren egiaztatze-ko egiten dituzte.

Inkestatutako udaletatik hiruk baizik ez dituzte mugatzaile-erregistratzaileen ikuskapenak egiten. Mugatzaile-erregistratzaileak derrigorrezkoak dira taberna berezietan. Merkaturak marka eta modelo ezberdinak daudenez, zailagoa da administrazioarentzat datuak kontrolatu eta biltzea eta, hortaz, egin daitezkeen arau-hausteak kontrolatzea.

1999. urtean, Ingurumen Departamentuaren txostena zenbait jarduera sailkatuen (tabernak eta kafetegiak, besteak beste) espedientetik kanpo uzten duen erreforma egin zenetik, departamentuak ez ditu lokal horiek ikuskatu eta ez da legezta-tze eskakizunik egin, Jarduera sailkatuei buruzko 16/1989 Foru Legearen aginduak indarrean egon arren; agindu horiek departamentuari jarduera sailkatu guztien goi ikuskaritza esleitzen diote, bai eta esku-hartze subsidiarioa ere, udalaren ekintzarik eza dela-eta, neurri zuzentzaileak eskatze-ari, jardueraren legezta-tzeari edo zehapen ahalmenari dagokienez.

ZEHAPENAK

Udalen % 23k baizik ez dute zaratagatiko zehapenen bat jarri, azken hiru urteotan.

Zehapen gehienak ekonomikoak izan dira. Zehapen ekonomikoek erakutsi dute ezin dutela, berez eta haien kabuz bakarrik, arazoa konpondu, baldin eta horiekin batera bestelako neurriak hartzen ez bada.

Lau salaketatik batean, hau da, % 25ean zehapen espediente bati hasiera eman zaio, eta % 17k zehapenak eragin dituzte. Lehendakaritza kontseilariak lokalei 66 zehapen jarri dizkie batez beste, urtero, ezarritako ordutegia ez betetzeagatik. Zehapenak 600 euroko isunak izan dira, oro har.

Ingurumen Departamentuak industriei 3 zehapen espediente ireki zitkien iaz, zaratekin lotuta.

NEURRI ZUZENTZAILEAK.

Salaketen % 16an, udalek neurri zuzentzaileak hartzeko eskatu zuten eta, % 3an, jarduera arautzeko ohartarazpena egin zuten.

Ezohikoa da bete ez diren neurri zuzentzaileak subsidiarioki betearazteko ahalmenaren aurkako errekurtsoa.

BADAEZPADAKO NEURRIAK

Legeak zehapen espediente bat izapidetzen den bitartean har daitezkeen behin-behineko neurri zehatzak ezartzen ditu:

kaltea edo arriskua sortzen jarraitzea saihesten duten kontrol neurriak; aparatuak edo ekipoak zigilatzea; instalazioak aldi baterako, partzialki edo osorik ixtea; jarduerak etetea...

Zehapen prozeduran, behin-behineko edo badaezpadako neurrien helburua bikoitza da: alde batetik, eman litekeen ebazpenaren eraginkortasuna bermatzea; eta, beste alde batetik, arau-haustearen ondorioek irautea saihestea. Behin-behineko edo badaezpadako neurriak proportzionaltasun irizpideei jarraikiz ezarri behar dira beti.

Hala ere, zehapen espedienteen % 8ri baino ez zitzairen behartu mugatzaile-erregistratzaile bat jartzera, % 2ri baizik ez zitzairen musika ekipoa zigilatu edo kendu eta % 3ri baino ez zitzairen jarduera aldi baterako eten edo lokala itxi.

KONTROL BIDEEN HORNIKETA

Dirudienez, Iruñeko Foruzaingoak eta Udaltzaingoak egungo eskaerari erantzuteko behar adina bitarteko dute. Hala ere, gainerako udalen % 21ek ez dute behar beste giza baliabide eta baliabide material, jarduera gogaikarrien ikuskapen, zainketa eta kontrol jarduerak behar bezala egiteko. Nafarroako 18 udalek baizik ez dituzte emisio mailak kontrolatzeko sonometroak.

ARAUDIA

Gaur egun arte, 10.000 biztanletik gorako zortzi udaletatik hiruk baizik ez dute zaratei buruzko ordenantza, nahiz eta indarrean den araudiak horretara behartzen dituen.

Oro har, Nafarroako udalen % 20k baizik ez dute zaratekin, ordu mugaketarekin eta abarrekin zuzenean zein zeharka lotutako berezko arauen bat.

Udalen % 39k uste dute kutsadura akustikoari buruzko araudi orokorra egokia eta nahikoa dela, toki entitateen esku-hartze eraginkorra ahalbidetzeko gai horren inguruan. Udalen %21 ez daude ados baieztapen horrekin.

Ingurumen Departamentuaren eta Foruzaingoren arduradunek uste dute araudi orokorra prozesuan eraginkortasunez esku-hartzeko nahikoa eta egokia dela, "betiere hura aplikatzeko asmorik bada". Hala ere, araudia konplexua dela onartzen da, arau bat baino gehiago dagoelako.

4/2005 Foru Lege berria garatzeko erregelamendua onetsi berri da. Erregelamendua Legearen aplikazioari buruzko alderdi garrantzitsuak zehazten ditu.

ADMINISTRAZIOEN ESKU-HARTZEAREN ERAGINKORTASUN OROKORRA

Arlo horretan, Administrazioaren esku-hartzea ez da uste bezain eraginkorra. Hori "kasu historikoen" iraunkortasunak, bereziki, uzten du agerian. Kasu historikoen ezintasun sentsazio berezia sortzen dute herritarrengan, eta auzibidera edo arartekoarengana jo behar izaten dute.

Egiaztatu da zehapen ekonomikoek ezin dutela, berez eta beren kabuz bakarrik, arazoa konpondu. Hala ere, oso gutxitan hartzen dira Legean kasu larrietarako ezarritako bestelako neurriak, hala nola jarduera aldi baterako etetea, instalazioa behin betiko ixtea, baimena galtzea...

Araudia aplikatzeko zailtasunak daudela egiaztatu da. Zailtasun horien arrazoiak hauek izan daitezke: arazoaren garrantzia eta eragina gutxiesten duten zenbait erantzule publikoren jarrera desegokiak; udalerrri txikietan gizarte faktoreak egotea; edo neurri zuzentzaileen eragin ekonomikoa (industrien kasuan, bereziki).

ZARATA PLANAK ETA MAPAK

1987. urtean, Osasun Departamentuak "zarata eta dardarak kontrolatzeko jarduketa plan" bat egiteko arauzko aurreikuspenak egin zituen arren, azkenean ez zen planik egin. Plan horretan, epe labur eta ertaineko helburuak jaso behar ziren, eta 10.000 biztanletik gorako udalek, gutxienez, hura egiten parte hartu behar zuten.

Bere aldetik, Ingurumen Departamentuak jakinarazi digu hasi direla Iruñerriko hiri aglomerazioari buruzko zarata mapa eta Iruñerriko ingurabideen mapa estrategikoak egiteko lanak. Iruñerrian, 250.000 biztanle baino gehiago daude eta, Iruñerriko ingurabideetan, sei milioi ibilgailu baino gehiago ibiltzen dira, urtero. Mapa horiek, araudiari jarraikiz, 2007ko ekainaren 30a baino lehen onetsita egon beharko dute.

GOMENDIOAK**NAFARROAKO UDALEI**

1. Nabarmenki areagotzea kutsadura akustikoa kontrolatzeko egiten diren ikuskapen jarduerak. Zehazki, jarduera sailkatuen esparruan, hauxe egin behar da:

- Soinu mailen egiaztapenak “in situ” egitea, jarduera abiarazteko irekitzeko lizentzia eman aurretik, baita jardueraren sustatzaileek intsonorizazio egiaztagiria aurkeztu dituztenean ere.

- Jarduera garatzen den bitartean, ikuskapen edo kontrol jarduerak egitea edo/eta adian behingo birziurtapenak eskatzea, irekitzeko lizentzia eman zenean eskatu ziren intsonorizazio baldintzak mantentzen direla egiaztatzeko.

2. Prestasun eta zorroztasun handiagoz betetzea jarduera gogaikarri buruzko arauak ezartzen dituzten jarduteko betebeharrak zehatzak, jardura baten funtzionamenduari buruzko kekek planteatzen direnean:

- establezimenduko titularrari eragozpenak saihesteko behar diren neurri zuzentzaileak hartzeko eskatu behar zaio, epe zehatza emanik.

- neurri zuzentzailea subsidiarioki betearaziko da, ez-betetze kasuetan.

- zehapen prozedurak izapidetzen diren bitartean, beharrezko behin-behineko edo badaezpada neurriak ezartzea hausnartuko da, zehapen ebazpenaren eraginkortasuna bermatu eta arau-haustearen ondorioak sortzen jarraitzea saihesteko, proportzionaltasun irizpideen ezarpenari jarraituz. Hauek izanen dira behin-behineko edo badaezpada neurri horiek: aparatuak edo ekipoiak zigilatzea; instalazioak aldi baterako, partzialki edo osorik ixtea; jarduerak etetea; edo kaltea edo arriskua sortzen jarraitzea saihesten duten beste kontrol neurri batzuk hartzea.

- kasu bakoitzean ezarri behar diren zehapenak behar bezala baloratu behar dira, bakarrik diru zehapenak ezartzea saihestuz.

3. Zarata eta dardarei buruzko ordenantza espezifikoa onestea, indarrean den legerian ezarritakoa garatuz eta zehaztuz, kasuan kasuko premiak eta berezitasunak kontuan hartuta. (Ordenantza hori derrigorrezkoa da 10.000 biztanle baino gehiagoko herrietan).

4. Ordenantzak eta hirigintza plangintza zarata buruzko 37/2003 Legean ezarritakora egokitzea: alor akustikoak lurzuaren erabilera nagusiaren arabera zehaztea; etxebizitzak, ospitaleak, ikastetxeak edo kultur etxeak altxatzea debekatzea,

neurtu edo kalkulaturako soinu inmisioen mailak kasuan kasuko alor akustikoetan ezarri behar diren kalitate akustikoko baldintzak betetzen ez badituzte...

5. Onartutako gehieneko soinu inmisioen mailak eta ordu mugaketak zehaztea, aisialdirako lokalak itxeko ordutegiak zabaltzeko ezohiko egoerak edo/eta ostalaritzako elementu desmuntagarriak establezimenduetako kanpoko aldean paratzea baimentzen denean, herriko jaien ondorioz.

6. Kutsadura akustikoa ikuskatu eta kontrolatzeko eginkizunak benetan gauzatzeko behar adina bitarteko bermatzea, Udaltzaingoa prestatuz edo horretarako bitarteko teknikoak emanez, edo Ingurumen Departamentuari eta Foruzaindari laguntza baliabideak esplizituki eskatuz.

NAFARROAKO GOBERNUARI

1. Kutsadura akustikoan eragiten duten arauzko xedapenak bateratu eta hobetzea, kontuan hartuta zarata buruzko 37/2003 Legearen etorkizuneko arauzko garapenak, ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko 4/2005 Foru Legea garatzeko onetsi berri den erregelamendua eta gaur egun indarrean diren beste arau batzuk, bereziki, 135/1989 Foru Dekretua; 135/1989 Foru Dekretuak zaratak eta dardarak sortzen dituzten jarduerak bete behar dituzten baldintza teknikoak ezartzen ditu.

Hona hemen hobetu litezkeen beste alderdi batzuk:

- “Taberna arruntak” (ez bakarrik taberna bereziak) behartzea, oro har edo egoera zehaztuta, barruko soinua mugatu eta erregistratzeko aparatuak jartzera, establezimendu horien gehieneko soinu maila aldizka kontrolatu eta egiaztatzeko.

- “Taberna arruntak” (ez bakarrik taberna bereziak) ate-leihoak itxita egotera behartzea, lokalaren barruan musika jarrita dutenean.

- Gaur egun neurketak egiteko dauden teknikak eta prozedurak hobetu eta normalizatzea.

- Soinua mugatu eta erregistratzeko sistemak homologatu eta estandarizatzea, datu bilketa eta tratamendua errazteko...

- Toki entitateek eredu edo orientabide gisa erabiltzeko ordenantza bat egitea. Horretarako, kontuan hartuko dira erabilera pribatuko edo sarbide murriztuko aisialdirako lokalen (“gelak”, “txabiskeak”...) funtzionamendua baimentzen duen udal lizentzia emateko prozedura eta eskakizunak, besteak beste.

2. Nabarmenki areagotzea Ingurumen Departamentuak eta Foruzaingoak beharrezko bitarteko teknikorik ez duten toki entitateei laguntzeko egiten dituzten aholkularitza, ikuskapen eta kontrol jarduerak.

3. Ingurumen Departamentuak bizkortzea zaratari buruzko legean ezarritako tresnen garapena (zarata mapena eta ekintza planena, bereziki), horiek egiteko ezarritako epeak benetan betetzeko.

1. ERANSKINA. UDALEI ESKATUTAKO INFORMAZIOARI BURUZKO GALDETEGIA

KUTSADURA AKUSTIKOA

1. Egin al du udal horrek zaratekin, ordu mugaketarekin eta abarrekin zuzenean zein zeharka lotutako berezko arauen bat?

Hala bada, gehitu horien kopia.

2. Deskribatu, laburki, eta zehaztu, ahal den neurrian, udalak azken hiru urteotan garatu duen

kutsadura akustikoaren kontrol prebentiboko jardura, eta aipatu, espresuki, hauxe: jardura sailkatuek baimendutako funtzionamendu baldintzak betetzen zituzten gainbegiratzeko egindako ikuskapenen kopurua eta programatutako aldizkakotasuna, hala badagokio; egindako sonometriak; taberna bereziek eta ikuskizunetarako kafetegiek soinua mugatu eta erregistratzeko dituzten aparatuen egiaztapenak edo egiaztatze jardura...

Herritarren salaketaren ondorioz egiteko eskatu zaizkien ikuskapenen kopurua

Ezarrirako neurri zuzentzaileen ondoriozko prebentzio edo jarraipen kontrolen kopurua

URTEKO IKUSKAPENAK, GUZTIRA

EGINDAKO KONTROL MOTAK

2003 2004 2005 Guztira

Neurketa objektiborik gabeko bisita kopurua

Egindako sonometria kopurua

Mugatzaille-erregistratzaileen egiaztapen kopurua *

* Taberna berezienak, ikuskizunetarako kafetegienak...

3. Zenbatu edo, bestela, zerrendatu azken hiru urteotan herritarrek zarategatik eragozpenei buruz jarritako kekek eta adierazi bakoitza eragin zituen arrazoiak edo kasuen kategoria multzokatu.

Adierazi, bereziki, jardura, lokal edo egoera berberarekin lotutakoak.

BIZILAGUNEK AURKEZTUTAKO SALAKETA KOPURUA 2003 2004 2005 lokal kopurua

Tabernak

Aisialdirako lokalak edo txabiskeak

Bizilagunak

Beste jardura sailkatu batzuk

Beste batzuk

Herritarrek aurkeztutako salaketa kopurua

4. Adierazi udal horrek salaketen aurrean jarraitutako ohiko jarduketa prozedura eta adierazi, espresuki, lortutako emaitza. Aipatu, bereizita, lokal, jardura edo egoera berberaren aurka jarritako salaketak.

Ondorio hauek izan dituzten salaketen kopurua: 2003 2004 2005 Guztira

Ez da ikerketarik hasi

Salaketa artxibatu da, egiaztapen jardura egin eta gero

Neurri zuzentzaileak hartzeko eskakizuna egin da

Jardura arautzeko ohartarazpena egin da

Zehapen espedientea ireki da

5. Zein irizpide erabili ditu udal horrek aurreneurriak hartzeko, zehapen espedienteak izapidetzen ziren bitartean, eman den zehapen ebazpenaren eraginkortasuna bermatu eta arau-haustearen ondorioak sortzen jarraitzea saihesteko?

6. Azaldu azken hiru urteotan izapidetutako prozeduretan hartutako neurriak eta neurri horiek zein kasutan hartu ziren.

Ondoko hauek izan dituzten zehapen espedienteen kop.:	2003	2004	2005	Guztira
Aurreneurriak hartu dira				
Musika ekipoa zigilatzea				
Musika ekipoa kentzea				
Mugatzaille-erregistratzaile bat jarri beharra				
Jarduera aldi baterako etetea				
Beste badaezpadako neurri batzuk				
Zehapena eragin dute				

7. Zehaztu azken hiru urteotan kutsadura akustikoari buruz izapidetu diren zehapen espedienteen kopurua eta adierazi, espresuki, ezarritako zehapenak.

Aipatu, bereziki, jarduera edo lokal berberaren inguruan jarraitutako prozeduren emaitza.

8. Udalean kexa asko sortzen dituen zaratei buruzko arazo espezifikorik dago? (zarata, botilioi, etxabe edo txabiske eta abar ugariko eremuak, autobus geltokiak, zabor bilketa, etab.). Zein jarduketa aurreikusi dira arazo horiek konpontzeko?

9. Udal horrek behar beste giza baliabide eta baliabide material du, jarduera gogaikarrien ikus-

kapen, zainketa, kontrol eta zehapen jarduerak behar bezala egiteko?

10. Zaratari dagokionez, zein hobekuntza alorretan izanen litzateke gomendagarria esku-hartzea?

Ezarritako helburuak dituen hobekuntza planik dago?

11. Udal horren ikuspegitik, kutsadura akustikoari buruz dagoen araudi orokorra toki entitateek gai horren inguruan eraginkortasunez esku hartzeko egokia eta nahikoa da?

BESTE OHAR INTERESGARRI BATZUK:

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »	